1919·2019

ARGIA

1968ko Aberri Egunean 300 lagun atxilotu zituzten Donostian. Hurrengo urtean, salbuespen egoera tarteko, ez zen deialdi masiborik egin.

1969
BURGOSKO PROZESUAREN AURREKO URTE BEROA

#2.644 | 2019 / 05 / 19 | 3,90 €

Bizidunen extintzio masiboaz ohartarazi gaituzte enegarrenez

10 | NET HURBIL

"Han genuen guztia galdu dugu, ez dugu nora itzuli"

36 | SIRIAKO ERREFUXIATUAK

"Musika eta bizitza batera doaz"

44 | AIDA TORRES, MUSIKARIA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #242

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

NEUROKAPITALISMOA

ARGIA.EUS/LARRUN

ARGIA

2.644 zenbakia I Maiatzak 19, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I GAIZKI ERRANKA
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
'EUSKAL HERRIA ETA ASKATASUNA' LIBURUTIK

Iritziak

17 I ASIER BLAS MENDOZA
18 I ANE ABLANEDO LARRION
19 I ANDONI MUJIKA
19 I EDU ZELAIETA ANTA
20 I ANE LABAKA MAYOZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

39 I DENBORAREN MAKINA
40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: ISABEL ALONSO
54 I BERANDUEGI

KOLDO AZKUNE

36 I **SIRIAKO ERREFUXIATUAK NAFARROAN**
Gerra hasi zenetik Siriako populazioaren erdia baino gehiago desplazatuak dira, zonalde batetik bestera edo atzerrira ihesean ateratakoak. Nafarroara iritsitako hirurekin aritu da Koldo Azkune, hemen bizi duten errealitatea ezagutzeko batetik, Sirian gertatzen ari denaz hitz egiteko bestetik.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Bizidunen extintzio masiboan murgilduta gaudela ohartarazi digute hamaikagarrenez
Pello Zubiria Kamino

12 I PATXI ATOZKI, BIOLINEN ZIRUJAUA
"Kilometro zeroko biolin bikainik ezin da egin"
Reyes Ilintxeta

22 I HISTORIA
Frankismoaren amaieraren hasiera: Artekaletik Burgosera
Juan Mari Arregi

28 I EUSKARABENTURA
Abenturak gazte euskaldunak pizten ditu
Onintza Irureta Azkune

30 I 'GERRA HEMEN HASTEN DA' DOKUMENTALA
Odola dario gure arma industriari
Gorka Peñagarikano

34 I ESKUIN MUTURRAREN GORAKADA
Italiako Legaren esperientzia Europako liga xenofoboa osatzeko
Xuban Zubiria

44 I AIDA TORRES, MUSIKARIA
"Musika eta bizitza batera doaz"
Gorka Erostarbe Leunda

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

Elite prekarioa

Emakumeen kirola azken urteetan lortzen ari den indarraren isla izan daiteke pasa den asteburuan Realak eskuratutakoa. Erreginaren Kopa irabazita, ikusgarritasun mediatikoa bereganatu du eta belaunaldi gazteenentzat eredu bilakatu dira. Oraindik asko dago egiteko, ordea: garaipen historikoaren B aldea da txapeldunek lanera –futbol-zelaitik kanpoko lanera– joan beharko dutela biharamunaren biharamunean, gizonekin alderatuta soldata eta baldintza duinak izatetik oso urrun baitira oraindik emakume kirolariak.

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

EZ NUEN USTE SEKULA NEURE BURUA FUTBOLARI LOTUTAKO EZER BERTXIOTZEN IKUSIKO NUENIK. BAINA REALEKO EMAKUME PUSKA HAUEK MEREZI DUTE. ZORIONAK!

@MKattalin

3 URTEKO ALABAK: "BERAIEK BEZALAKO FUTBOLARIA IZAN NAHI DUT". BADAKIGU BENETAN ZER EGIN DUEN ERREALAK? ZELAIAK BETE, KOPAK IRABAZI ETA BELAUNALDI BERRIAK ILUSIOZ BETE! OSO HARRO!

@afurunda

ATLETICO MADRILEK ETA REALAK ERREGINAREN KOPA JOKATU DUTE. EZ DAGO DIRU-SARIRIK EZARRITA ETA 0 EURO ERAMANGO DITUZTE. ERREGE KOPAREN GIZONEZKO TALDE TXAPELDUNAK MILIOI BAT EURO ERAMATEN DITU ETA ERREGE KOPAREN MUTILEN JUBENILETAKO TXAPELDUNAK 12.000 EURO

@FonsiLoaiza

EGUN POLITAK ARGITU DU REALAK ERABAKI DEZAN EMAKUMEZKOEN LEHEN TALDE OSOAK ZORTZI ORDUZ KOTIZATZEA ETA SOLDATA ETA BALDINTZA DUINAK MEREZI DITUELA

@Imagreto

Z. OLEAGA

Heriotza gehiago ez espetxean

Z. OLEAGA

Urtea hasi zenetik Arabako espetxean hilik agertu den laugarren presoa da González García. Hainbat elkartek adostutako dokumentu bat aurkeztu dute, zaintzapeko etengabeko heriotzak amaitzeko neurriak exijituz.

28 urteko gaztea apirilaren 25ean agertu zen hilik Zaballako bere ziegan, oraindik argitu gabeko zergatiengatik. Hiru aste lehenago, 24 urteko Jonathan Costillas Rituerto gasteiztarrak bere burua urkatu zuen espetxe berean. Bi urte eta lau hilabete eman zituen Zaballan preso Gonzálezek. Adrian Donnay Salhaketako kideak kritikatu du denbora horretan guztian ezin izan dituela bere hiru alabak ikusi; "azken hilabeteetan, ezta bere bikotekidea ere". Heriotzaren ostean espetxeak izan duen jarrera gogor kritikatu du Salhaketako ordezkariak. Senideek "ez dute laguntza psikologikorik izan, ez eta erreferentziazko akonpainamendurik prozesuan. Ez dituzte haien eskubideen inguruan behar bezala informatu". Espetxeak Gonzálezen gorpua errausteko agindua eman zuen autopsiaren emaitzak jaso aurretik, bigarren autopsia baten aukera ezinezko bihurtuz.

Zaballako zuzendaria Gonzálezen senideekin bildu zen, baina zuzendariak senideekin izandako jarrera gaitzetsi dute familiak zein Salhaketak. Haien esanetan, hasiera batean adierazi zien presoaren egoeraren jakitun izanez gero "zer edo zer gehiago" egin izango lukeela, baina familiak eta Salhaketako abokatuak azken lau hilabeteetan izandako lau heriotzak aipatu zizkiotenean, "zuzendariak azalpen eskaera bat bezala ulertu zuen eta bost minututan bilera amaitutzat eman zuen".

Heriotzaren zergati zehatzak oraindik ezezagunak badira ere, "ondo dakigu, zaintzapeko heriotza gehienak bezala, hau ere ekidin zitekeela, ez dela naturala", adierazi du Donnayk. Hori dela eta, familia kausan aurkeztuko da gertatutakoa argitu asmoz.

Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko hamasei elkartek adierazpen bat sinatu dute, bederatzi neurri aplikatu daitezela exijituz, hala nola: fiskaltzak Estatuaren zaintzapeko heriotza guztiak ofizioz iker ditzala; espetxeetako zuzendaritzek informazio inpartziala eman diezaiotela senideei eta ez dezatela gorpuak erraustea lehenetsi autopsia berrien aukera saihesteko; zigorrak betetzeko espetxeaz besteko alternatibak garatu ditzatela; larriki gaixo dauden presoak espetxetik atera ditzatela; preso kopurua gutxitu dezatela eta zigorrak bizitokitik ahalik eta hurbilen betetzea berma dezatela.

GAIZKI ERRANKA

Zure ondoan

SANTI LEONÉ

Kontakizunetan, are gehiago partekaturiko kontakizunetan, isiluneak kontatzen dena bezain inportanteak izaten dira. Maiz, isiluneek egiten dute posible kontakizuna onargarria ez ezik ederra ere izan dadin. Kontakizuna esaldi bakarra izaten ahal da: konparaziorako, "175 urte zure ondoan" lelopean ari da ospatzen bere urteurrena Espainiako Guardia Zibila, lau hitzetan herritarrei urte luzeetan emandako babesa irudikatu nahian. Isilpean, 19. mendean Andaluziako anarkismoa erreprimitzeko sortu zela, edo egitura militarra eman zitzaiola guardiek, kuarteletan bilduta, noizbait zafratu beharko zituzten herritarrekin enpatiarik izan ez zezaten. Ez da hain urrun joan beharrik. *Itziarren semeak* dokumentala eman zuten igandean ETB2n. Trantsizioraino ere ez da joan beharrik, halere.

Trantsizioko narrazio konpartitua ere isiltasunaren gainean eraiki dute. Herenegun artio, Estatuko estoldak eskandalu ziren. Orain, berriz, Espainiako demokraziaren saindu berria hil den honetan, gustu txarrekoa litzateke estolda horiek aipatzea. ETAren akabera ekarri baitzuen sainduak.

Voxi buruz idatzi du Anne Applebaum Pulitzer saridunak *El País* egunkarian. Bertze gauza batzuen artean, partekaturiko narrazio bihurtzen ari den tesia berretsi du egileak: Kataluniako prozesuaren ondorio da Voxen arrakasta. Hala erran omen zioten guziek Madrilen.

Espainiako sainduak eta Espainiako demokrazia, bistan da, akasgabeak lirateke periferiako herri horiengatik ez balitz. Euskal Herririk gabe ez zatekeen Estatuko estoldarik izanen; Kataluniarik gabe ez zatekeen faxismorik izanen. Gu gabe, Espainia perfektua litzateke, baina gu gabe ez lukete perfekzio eskasiaren errua nori egotzi. Behar gaituzte, gorrotatzeko bada ere. Horregatik bertze horiek ere behar dituzte, gure ondoan 175 urte daramatzatenak. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"ERABAKI NUEN DESOBEDIENTZIA EKINTZA ARTISTIKO GISA BIZITZEA"

ABEL AZCONA, ARTISTA

Performance batean ostiekin "pederastia" hitza jartzeagatik epailearen aurrean deklaratzera bitan deitu dute Azcona iruindarra, baina ez da agertu. Portugalen dago erbesteratuta. "Erabaki nuen desobedientzia ekintza artistiko gisa bizitzea. Prozesu guztia proiektu performatibo bat izango da, neure burua ahalduntzeko prozesu bat. Prozesu historiko-politiko eta sozialak aztertu ditut, zeintzuetan isiltasuna erresistentzia tresna gisa erabili izan duten. Ni atxilotzera datozenean, erresistentzia pasiboa egingo dut, isiltasunaren bitartez". **BERRIA (2019/05/13)**

EKONOMIAREN TALAIAN

Eta monarkia mantentzeko dirua badago?

JUAN MARI ARREGI

Felipe VI.a Espainiako erregeak iaz 242.769 euro irabazi zituen –hilero 20.230 euro–, eta bere emazteak, Letizia erreginak, 109.260 euro. Espainiar errege familiak orotara 679.818 euro poltsikoratu zituen 2018an soldata gisa, eta Errege Etxearen urteko aurrekontua 7,9 milioi eurokoa izan zen –horietatik 3,8 milioi euro pertsonaleko gastura-ko–. Baina errege familiatik aparteko goi karguek ere 100.000 euroko urteko sarrerak izan zituzten. Hori guztia gutxi balitz, duela egun gutxi Espainiako Kongresuan zintzilikatutako Felipe VI.aren erretratuak 88.000 euroko kostua izan du. Horiexek dira publiko egin berri diren datu ofizialak, denon zergetatik ordaindu beharrekoak.

Ez da egia diru falta dagoenik jendarteko sektore umilenen beharrak asetzeko, baina milioika lagun dira 900 euroko gutxieneko soldata ere ez dutenak edo 634 euroko pentsio minimora iristen ez direnak. Joan den astean txoko honetan salatu dugu estatuek gastatzen dituztela milioka milioi euro armetan. Orain badakigu Espainiako Estatuan zenbat gastatzen den monarkia anakronikoa mantentzeko. Berdintasuna sustatzeko politika sozialik ez dago, eta politika antimilitarrik are gutxiago: aberastasuna ez da zuzen banatzen. Ez al da lotsagarria Felipe VI.ak gure zergetatik 20.230 euro jasotzea hilean, gutxieneko soldata eta pentsio miserable horiek daudenean? Justua eta bidezkoa eta zentzuduna al da erregeek eta errege-ohiek antigoaleko 100 milioi pezeta eramatea urtero?

Gaur egun monarkia mantentzeak, garaiz kanpokoa eta antidemokratikoa izateaz gain –ez baitugu guk aukeratu–, ekonomikoki ere kostu itzela dakar eta iraingarria da herritarren gehiengoak dituen soldata eta pentsioekin alderatzen badugu. Bederenik, herritarrok erabaki beharko genuke hori horrela izatea nahi dugun ala ez. ●

ANALISIA

FACEBOOK

Polizia lana egiten duen alkatea

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Dirudienez, polizia lana da alkateari dagokion lana, bai behintzat Ribaforadan. Legea eta poliziaren eskakizuna bete baino ez duela egin dio bertako alkate Jesús Mari Rodríguezek (PSN). Modu bitxian egin du, hori bai: Nafarroako herri horretan hamar urte bizitzen zeraman jatorri senegaldarreko bizilagunari eskatu zion udaletxera gerturatzeko, erroldari buruzko bilera batera. Amarrua zen. Espainiako polizia zuen han zain eta 24 orduko epean hegazkinean sartu zuten Afrikara bueltan.

Alkatea irudikatu dezaket poliziak jomugan dituen herritarrei deitzen, aitzakiaren batekin udaletxera joan daitezela esanez. Kontuz, beraz, Jesús Mari Rodríguezek zurekin hitz egin nahi duela-eta udaletxera gonbidatzen bazaitu... Edo beharbada, profil jakineko bizilagunekin baino ez ditu halakoak egiten. Izan ere, gauza bat da legea bete behar izatea eta bestea legea tresna gisa baliatzea norbere asmoak aurrera ateratzeko. Gainera, herritarrak engainatzea ez al da legea urratzea? Etikoki behintzat bada arbuiatzeko modukoa eta jokabide etikoa ere badagokio alkate bati.

Nafar senegaldarrak hainbat delitu egiteagatik aurrekari penalak zituela eta horregatik kanporatze agindua zuela azpimarratu du alkateak. Ez dakit zein delitu egin dituen Ribaforadako bizilagunak, baina badakit zein erraz hartzen diren kanporatzeko erabakiak eta zein erraz ezartzen zaizkien aurrekari penalak migratzaileei gurean, nahikoa da isun bat euren etorkizuna orbantzeko.

Udal hauteskundeak gainean ditugun honetan, komeni da gogoratzea egoera zaurgarrienean dauden herrikideak babestea ere badela udal gobernuaren zeregina. VOXek milaka migratzaile Espainiako Estatutik bota nahi dituela esan eta asaldatu egiten gara, baina kanporatzeak gauzatzeko alfonbra gorria jartzen dutenak beste batzuk dira, eta ez dago ardi larruz mozorroturiko otsoa baino arriskutsuagorik. Hori ere gogoan hartu beharko genuke hurrengo udal hauteskundeetan. ●

KLIMA ALDAKETAREN ERANTZULEAK

MUNDUA. Jordan Engel mapagileak klima aldaketan erantzukizunik handiena duten 100 enpresa eta hauen arduradun nagusiak mapa batean kokatu ditu. Bertan da Josu Jon Imaz euskalduna, EAJko Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari ohia, egungo Repsoleko presidentea. "100 enpresa munduko berotegi gasen %70 baino gehiagoren arduradun dira, 1988tik".

Seaska, 50 urte borrokan

ARGIA

MACRONEN GOBERNUA

Seaskako presidente kargua utzi duela jakinarazi du Paxkal Indok Herri Urratsen. 2008an "hasi nintzenean 2.100 ikasle zeuden, gaur 4.200. Garaipenak izan dira, baina hori kolektiboki egin dugu. Euskaldunok badakigu zer den hori". Macronen gobernuaz esan du "inoizko gobernu txarrena" dela, "murgiltze ereduaren aurkakoa".

MOBILIZAZIOAK

Ikasle kopuruaren gorakada medio, Seaskak 30 irakasle berri behar ditu, baina Frantziako Gobernuak ez dizkie onartu nahi. "Borrokan eman ditugu Seaskan 50 urte, eta lortu arte borrokan jarraituko dugu", esan du Indok. Mobilizazioak deitu dituzte maiatzaren 17rako, "Euskaraz ikasi nahi dugu. Murgiltze eredua ez unki" lelopean.

INDEPENDENTZIA. Maiatzaren 11n milaka herritarrek hartu zuten parte Cardiffen (Caerdydd galeseraz) Galesen independentzia eskatzeko antolatutako manifestazioan. Brexit-a bozkatu zenetik, indartuz datoz Galesen historikoki ahulak izan diren burujabetzaren aldeko erakustaldiak.

MARAVILLAS GAZTETXEA. Maiatzaren 9an hasi behar zuen Iruñeko Rozalejoko Jauregiko okupazioaz akusatutako 22 gazteren aurkako epaiketak, baina Nafarroako Gobernuak dokumentazio berria ekarri du eta epaileak udazkenera atzeratu du epaiketa, data zehatzik jarri gabe.

EUSKARA IRUÑEAN. Euskararen udal ordenantza onartu du Iruñeko Udalak, EH Bildu, Geroa Bai, Aranzadi eta Ezkerraren aldeko botoekin. Ordenantza auzitara eramango duela dio UPNk. Euskara eta gaztelania Iruñeko "berezko" hizkuntzatzat ditu testuak, eta hizkuntz eskubideak berdintzeko xedea du.

BIZIDUNEN EXTINTZIO MASIBOAN MURGILDUTA GAUDELA OHARTARAZI DIGUTE HAMAIKAGARRENEZ

Nazio Batuen Erakundeak bildutako aditu talde batek txosten berri batean plazaratu du Lurra planetan bioaniztasunean "aurrekaririk gabeko" atzerakada gertatzen ari dela: milioi bat animalia eta landare espezie gal daitezke datozen hamarkadetan, esan du IPBES Ekosistemen Zerbitzuei eta Biodibertsitateari Buruzko Gobernu Arteko Plataformak. Aspalditik jotako alarmei berme akademikoa ezarri dien arren, ez da segurua munduak norabidea aldatuko duen.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

IPBESek, 50 bat herrialdetako 145 adituk osatu duten gobernu arteko plataformak, hiru urtetan osatu du 1.800 orrialdeko txostena, egunotan entzundako mezu larria daramana: milioi bat animalia eta espezie dago epe laburrean desagertzeko arriskuan, Lurrak dauzkan zortzi milioi espezieetatik bat. Baina txostenak kalkuluetatik bazter utzitako xomorroak gehitzen badizkiegu, orduan planetako lau espezietatik bat dago galzorian. Esan nahi baita, horiek denak galdu egingo direla, ez delako batere probablea munduak industrializazioarekin eta globalizazioarekin daraman martxa ondoko urteetan aldatzea.

Robert Watson IPBES erakundeko zuzendariak esan du: "Gure eta gainontzeko espezieen bizitzak baldintzatzen ditu ekosistemen osasunak, eta inoiz baino azkarrago ari gara hondatzen ekosistema horiek". Alegia, espezie bizidunen desagertze edo *extintzio masibo* batean murgilduta gaudela, dagoenekoz.

Biodibertsitatearen galeraren erantzukizuna ez dagokio soilik ingurumenari: garapenarekin, ekonomiarekin, segurtasunarekin eta balio sozial eta moralekin ere lotuta dago, adituen esanetan.

Aurreko txosten zientifikoek bezala, IPBESen honek ere lehen mailako erruduntzat dauka gizakiok lurzoruak hondatzeko daukagun jokabidea: soro eta zelaiak hormigoiz estali, oihanak eraitsi, padurak lehortu... Horatara garamatzate populazio handitzeak eta gizakien bizi mailaren hobetzea asetzeko planeta osoan nagusitu den nekazaritza industrialak.

Extintzio masiboaren beste lau zio nagusi ere aipatu dituzte adituek: natur baliabideen (meategiak, arrainak, oihanetako zuhaitzak) gehiegizko ustiatzea, kutsadura orokortua (kimikoa batik bat), leku bakoitzeko espezieak suntsitzen dituzten exotiko inbaditzaileak eta, azkenik, klimaren aldaketa. "1980tik –diote adituek– negutegi eragineko gasen isurketak bi halakotu egin dira, Lurreko batez besteko tenperatura gutxienez 0,7ºC berotu da eta plastikoen kutsadura hamarrez biderkatu da. 300-400 milioi tona metal astun, disolbagarri, lohi toxiko eta bestelako hondakin isurtzen dira munduko uretan".

Gainbehera larri hau gelditzeko oraindik aukera badagoela esan du IPBESeko buru Watsonek aurkezpen ofizialean: "Txostenak dio ez dela berandu auzi honetan gauzak beste modu batera egiten hasteko, baina orain hasi beharra dago, bai maila lokalean, bai globalean".

Hala ere, hori gerta dadin bete beharreko baldintzak kunplitzen zailak dirudite: "... baldin eta eraldaketa ekarriko duten aldaketak egiten badira, sistema osoa eta faktore teknologiko, ekonomiko eta sozialak kontuan hartuko dituztenak».

Baina, gainera, orain arteko oharrei munduko aginte nagusiek jaramonik egin ez dietenez –honetan bezala klimaren aldaketaren alorrean eta beste askotan-, herritarrak motibo gutxi dauka itxaropenerako.

Izaki bizidunen hondamendiari buruzko ohartarazpenak –zientziaren ikuspegi zorrotzetik egindakoak, alegia, bestelako katastrofismoak alde batera utzita- aspaldikoak dira. Askok ekologismo modernoaren amandretzat daukaten Rachel Carsonek 1962an "*Udaberri isila*" antologikoan azaldu zuen ordurako abian zegoela extintzio masiboa: "Amerikako Estatu Batuetako eremu gero eta zabalagoetan, hegaztien itzulerak iragarri gabe iristen da orain udaberria, eta, goizean goiz, isiltasun arrotza da nagusi lehen txori-kantuen edertasunak betetzen zituen egunsentietan. Txori-kantuen bat-bateko isiltze hori, gure munduari hegaztiek ematen dioten kolorearen, edertasunaren eta onuraren deuseztatze hori, bizkor eta maltzurki jazo da, eta eragin hori oraindik jasan ez duten herrietako biztanleak konturatu gabe". Baina munduak *business-as-usual* jarraitu du ondorengo 60 urteetan eta gaur txorien kanturik ezari gehitu zaio arrainik eza, erleen desagertzea, xomorroen suntsitzea...

EPEAK AGORTUTA, KALTEAK AGERIAN

Egunotan hedabide nagusiek grafiko eta irudi beldurgarriz beteta aipatu dute IPBESen txostena –astebeteren buruan ikus-entzuleei beste irudi are deigarriagoz ordezkatuta ahantzaraziko dizkietenez–; *Le Monde Diplomatique* aldizka-

ETXE-TXOLARREA
GIZAKIAREN BIZIMODURA HAIN ONDO EGOKITUTAKO TXORI HAU ERE DESAGERTZEN ARI DA HIRIETAN BEZALA LANDA EREMUKO HERRIETAN.

riak halako oroimen ariketa etsitu bat egin du bere webean, irakurgarritzat ekarriz aldizkarian bertan duela 50 edo 10 urte antzeko ohartarazpenez publikatutako artikuluak.

1970ean Jean Dorst ornitologoak *Diplo*-n plazaratu zuen "*Animalia eta landare espezie gehienak mehatxupean daude gizakiaren jokabidearen ondorioz*" eta bertan alarma jotzen zuen planetaren hondamendi biologikoaren aurrean, nabarmenduz fauna basatiaren atzerakadak adierazten zuela gizakiari ere helduko zitzaion hondamendia: "Horren azken biktimak geu izango baikara. Gure espeziea da, epe luzera, denetan mehatxatuena. Espero dezagun ez egia bihurtzea J.H. Fabre naturalistak esan zuen hura, gizakia desagertuko zela berak zibilizazio deitzen dion horren gehiegikeriek hilda".

Egoerak okerragora eginik, askoz geroago, 2007an, Alain Zecchinik idatzi zuen aldizkari berean: "*Biodibertsitatearen galerak mehatxatzen du gizadia*". Tartean hau: "Baina gizakiak pleonexiak jota daude, behar dutena baino gehiago edukitzeko irrikak. Irrazional eta berekoiak dira, zeren eta naturaren ustiatzea ez baita oihaneko bilketaren pareko –honek baimentzen du baliabideen iraupena– baizik eta extraktibismoarena, meategi bat alea erauzi arte ustiatzea".

Extintzio masiboan murgilduta gaude, eta horren lekuko da adin bateko edozein herritar, umetan ikusitako hainbat txori edo xomorro bere begien aurrean desagertzen ikusi duelako. Euskal Herrian ere bai. Hedabide nagusiek IPBESen txostena ahotan zerabilten egun beretan Gaindegiak berretsi zuen hartako puntu oso inportante bat, hemen bertan gertatzen ari dena: "Azken 28 urteetan aurreko historia osoan bezainbat lurzoru artifizializatu da Euskal Herrian". Baina nori axola dio?

Egia da, Extinction Rebellion mugimendua hedatuz doa munduan: Frantzian pestiziden kontra *Mitxoletak nahi ditugu* kanpaina; ekologistek borrokan darraite; baserritar txiki asko hasi dira beren soroen bioaniztasuna sustatzeko ahaleginean... Baina IPBESeko adituen kontrara, askok uste dute hondamendia saihesteko beranduegi dela, biodibertsitatearen krisia datorrelako klimaren aldaketaren eta energia krisi sakonari eskutik oratuta eta, ondorioz, horien kontra borrokatzea utzi barik, martxan diren kalteetara egokitzen hasi behar dela: *Deep Adaptation*, sakoneko egokitzapena. ●

Patxi Atozki

BIOLINEN ZIRUJAUA

“KILOMETRO ZEROKO BIOLIN BIKAINIK EZIN DA EGIN”

3D inprimagailuen garaian, Patxi Atozki Iruñeko luthierrak jarraitzen du palo santo zuhaitzen egurrez, Dolomitetako egurrez, erretxina egosiaz eta Mongoliako zaldi-zurdez biolinak egiten, Stradivarius erara. Zerbaitengatik izanen da.

REYES ILINTXETA
DANI BLANCO

Nola iritsi zinen luthierra izatera?

Kontserbatorioan biola ikasi nuen. Horrekin batera irakasle ikasketak egin nituen eta maisu aritu nintzen, baina neure burua ez nuen ikusten eskolan betiko. Garai hartan Iruñeko Javier Fernández tailugilearekin hasi nintzen zura eskuz lantzen; artisau lana eta musika nire zaletasun handiak izan direlako betidanik.

Eskolak ematen lau urte neramatzala, kasualitatez jakin nuen Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga kontserbatorioan luthier ikasketak eskaintzen hasiak zirela. Gainera, Fernando Lakunza, Kale Nagusiko Haizea dendakoak, esan zidan aukera polita izan zitekeela niretzat, hemen Iruñean halako profesionalik ez zegoelako. Nire bi pasioak bat egiteko aukera ikusi nuen. Beraz, dena utzita, hara joan nintzen. Izugarri ikasi nuen, besteak beste, Jesús Alonso Moral akustika doktorea zenarekin. Bera akustikaren fisikan eta biolinaren akustikaren inguruan aditu handia zen nazioartean eta Stockholmeko Teknologia Errege Institutuan egina zuen doktoregoa.

Bilbon hiru urte egin ondoren, 1991n Italiara joan nintzen, Cremonara, [Antonio] Stradivariren herrira, hain zuzen ere. Gaur egun han oso luthier onak daude eta haietako bat, Pierangelo Balzarini, Bilbora etorri zen ikastaro bat ematera. Berak gonbidatu ninduen hara joatera eta urtebeterako joan nintzen Cremonara eraikuntza-tekniketan eta bernizatuan sakondu nahian. Ondoren, Iruñera itzulitakoan, tailerra zabaldu nuen

Hiriaren bihotzean, ezta?

Bai. 1992an ekin nion lanari, Jarauta kaleko pisu txiki batean. Handik bi urtera, Gazteluko Plazara aldatu nintzen, eta han aritu naiz gaur egunera arte. 2010eko abenduan, lantoki berria zabaldu nuen, Kale Berrian, bezeroei zerbitzurik onena eskaintzeko.

Lantoki berria irisgarriagoa da, eta badago autoz ailegatzerik ateraino bertaraino. Handiagoa denez, lana hobeki antolatuta dago: denda, tailerra eta biltegia. Aukera ematen dit, gainera, instrumentu gehiago eta handiagoak erakusteko: biolontxeloak eta haien zorroak, esaterako. Lekua handiagoa denez, produktuak ederki daude ikusgai eta eroso-eroso probatzeko parada ere badago.

Lan handia izaten duzu?

Garaiaren arabera. Ikasturte hasieran lan handia izaten dut ikasle askok haien tresnak eskoletarako prestatu nahi dituztelako. Halako sasoietan tresna berriak egiteari uzten diot eta bete-betean aritzen naiz konponketetan.

Zer musika tresnekin egiten duzu lan?
Hemen adituak gara instrumentu arkudunen eta atal osagarrien salmentan, baita biolinak, biolak, biolontxeloak eta kontrabaxuak konpontzeko lanetan ere.

Beraz, arku-instrumentuekin egiten dut lan. Hariari bibrarazteko, arku izeneko tresna erabiltzen dutenak dira. Nagusiak dira, batetik, antzinako biolaren familiakoak (viola da gamba, viola da braccio, viola d'amore...), eta bestetik, biolin modernoaren familiakoak (biolina, biola, biolontxeloa eta kontrabaxua). Orain, adibidez, viola da gamba soprano bat egiten ari naiz, biolarik txikiena.

Tresna berriak enkarguz egiten dituzu?
Normalean bai. Beste batzuetan, aldiz, lehenbizi tresna egiten dut eta gero halakorik erosteko interesa izan dezaketen musikariei erakusten diet, ea gustuko duten. Eztia muturrean jartzen diet.

Batzuetan berriak egin eta askotan zaharrak konpondu. Biolinen sendagilea zara zu?
Bai, sendagilea eta zirujaua. Batzuetan biolinaren arima pixka bat ukitzea aski da soinua erabat aldatzeko.

Arima?
Bai. Biolinean eta kideko hari-instrumentuetan, taula harmonikoa eta beheko azala elkartzen dituen zurezko piezari arima esaten zaio. Zubiaren behealdeko oinetik gertu ezartzen da eta harien tentsioari eusten dio, bibrazioak instrumentuaren gorputz osora transmitituz. Pieza hori presioan sartuta dago, baina mugi daiteke eta bere kokapenaren arabera soinu bat edo bestea ateratzen du biolinak.

Eta zubia zer da?
Sokak igurtzitakoan sortzen den bibrazioa kutxara pasatzen duen egurrezko pieza da. Kutxa soinua handitzen duen anplifikadorea da, azken finean. Zubiak indar handia egiten du eta batzuetan hori mugitzean arima eror daiteke.

Tresna guztiak desberdinak dira?
Kutxak eta zubiak egiterakoan eboluzio handia izan da eta egiteko modua bateratzen joan da. Hasieran, XVI. mendean, biolin eredu desberdinak zeuden, baina instrumentu arkudunen eskulangintzak Cremonako eskolaren eskutik jo zuen goia XVIII. mendean eta luthierrok, orduz geroztik, maisu handiek lortu zuten doinura eta egiteko molde hartara hurbiltzen saiatzen gara. Asmo hori gogoan, oihan berberetako zura erabiltzen dugu, lehortze onenarekin eta ezaugarri akustiko hoberenekin.

Zein langai erabiltzen dituzu?
Soinua formen eta materialen arabera aldatzen da. Biolinak egiteko modua oso zehaztuta dago, baina ez da gauza bera gertatzen beste tresnekin. Biolak egiterakoan ez dago eredu bakarra eta zubi mota asko erabiltzen dira, adibidez. Orain egiten ari naizen pieza honetarako Balkanetako astigarrez egindako zubia lantzen ari naiz. Han baldintza oso onak dituzte musika-tresnak egiteko egurra lortzeko. Guk oso egur trinkoa behar dugu eta han duten klima hotzarengatik zuhaitzak oso motel hazten dira.

Beraz, pinuz edo eukaliptoz ezin dira halako piezak egin?
Ez, baina goiko tapakia bai. Biolinen tapakiak izeiez egiten dira, Alpeetako edo Dolomitetako izeiez. Stradivarik eta bere garaiko luthierrek ere handik eramaten zuten egurra. Hemengo izeiek, Pirinioetakoek, ez dute horretarako balio.

Patxi Atozki Zubeldia

1963, IRUÑEA

Luthierra, artisaua eta musikaria. Irakasle izan ondoren, luthier ikasketak egiteari lotu zitzaion Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga kontserbatorioan. Ondoren, Cremona (Italia) Stradivariren herrira, joan zen eraikuntza tekniketan eta bernizatuan sakondu nahian. 1992an, tailerra Iruñean ezarri zuen, eta harez geroztik, hari-kuartetoa eskuz zaharberritzeari eta egiteari emana bizi da. 1993an, Pablo Sarasate nazioarteko lehen biolin lehiaketaren karira, Sarasateren beraren Villaume biolina doitzeko aukera izan zuen.

Arkuak zerekin egiten dituzu?
Arkuetarako egurra Pernambucotik, Brasildik, ekartzen dugu eta hariak, aldiz, Mongoliatik. Mongoliako zaldien buztaneko zurdak dira.

Gaur egun zaldiak propio hazten dituzte horretarako. Enpresa europar batzuek garbitu, moztu eta komertzializatzen dituzte. Arkuaren zurdak normalean urtean behin aldatu behar dira, denborarekin haien propietateak galtzen dituztelako.

Garestia da arkuari hariak aldatzea?
Arku baterako sei gramo ile erabiltzen dira eta zurda kilo laurdena guri 300 euroan ateratzen zaigu.

Angulak Eguberrietan baino gehiago...
Bai ba!

Nola eskuratzen dituzue material hauek guztiak?
Orain saltzaileak askotan etortzen dira egurra eskaintzera tailerrera. Horrez gain, mundu osoko hornitzaile orokorrak interneten aurkituko dituzu arazorik gabe. Frantzian, adibidez, badira bi enpresa ia mundu osoan zubiak erdi eginak saltzen dituena, gero nahi bezala bukatzeko.

Zubien bukaerako dekorazioa eta diseinua zuk zeuk erabakitzen dituzu?
Normalean musika-tresnen museoetan dauden antzinako ereduak kopiatzen ditugu edo haietan oinarritzen gara.

Kilometro zeroko langairik ez duzu erabiltzen?
Ezpela bai. Tresnetako zenbait atalek egur oso gogorra eskatzen dute eta horretarako erabiltzen dira ebanoa, palo santo eta ezpela. Hemengo ezpela, Pirinioetakoa, oso ona da. Giltzak egiteko bikaina. Mendian hartzen ditut ezpel adarrak, uzten ditut idortzen hainbat urtetan eta tornuarekin ematen diet forma. Beti egur zaharra erabili behar da, egur berria mugitzen da eta arazoak ematen ditu.

> ***Biolinen tapakiak izeiez egiten dira, Alpeetako edo Dolomitetako izeiez. Stradivarik eta bere garaiko luthierrek ere handik eramaten zuten egurra. Arkuetarako egurra Pernambucotik, Brasildik, ekartzen dugu eta hariak Mongoliatik***

Bestalde, Ultzamako behorren ileak ere erabili izan ditut arkuak egiteko, baina ez biolinetarako, oso lodiak direlako. Javier Colinaren kontrabaxuaren arkuari jarri nizkion proba egitearren eta funtzionatu zuen. Ile ilun eta gogorrak behar dira horietarako eta hemengo zaldi-zurdek balio dute. Argi dago kilometro zeroko biolin bikainik ezin dela egin.

Eta bernizak nola eskuratzen dituzue?
Geuk prestatzen ditugu. Badira bernizatzeko modu asko: alkoholarekin, olioarekin... Zuhaitzetako erretxina hartu eta egosi egiten dugu, gero olioarekin nahasteko. Soinurako oso garran-

MARCOS
okindegia
Benetako antzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen lagunduko dizugu
SIGACUS
✆ 943 453 588 · www.sigacus.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

tzitsua da bernizak malgutasuna izatea bibrazioari bidea emateko. Normalean Uztarrozen, emaztearen herrian, egiten dut lan hori, tailerrean ezin delako. Udan herrian egoten garela aprobetxatuz, urte osorako bernizak prestatzen ditut. Gero koloreak nahasten ditugu nahi bezala, baina beti Stradivariusen ereduari jarraikiz.

Hemen, oro har, berrikuntza gutxi, beraz?

Bai, hala da. Saiatzen gara ahalik eta hobekien imitatzen Cremonan Stradivarik, Amatik, Guarnerik... bere garaian egiten zutena. Konpetentzia handia zegoen haien artean eta izugarri garatu zen teknika. Gaur egun Europan tradizio handia dago eta toki guztietan daude orain egile bikainak.

Zure bezeroak nongoak dira?

Hemengoak, Euskal Herrikoak eta kanpoko batzuk ere bai. Aragoitik eta Errioxatik, esate baterako, etorri ohi dira.

Zenbat balio du biolin berri batek?

Eskuz egindako baten prezioa 6.000 eta 15.000 euro artean dago. Fabrikan eginak eta guk bukatutakoak 3.000 euro inguru balio ditzake; fabrikan eginak eta jotzen hasteko balio duenak, 300 euro inguruan. Merkeagoak ere badira, noski, baina kalitaterik gabeak. Tresna berriak besterik egiten ez dituzten luthierrek, agian urtean lau edo sei pieza egiten dituzte. Hor neurtu daiteke zenbat lan ordu behar diren tresna bakoitza egiteko.

Zure ebakuntza mahaitik Sarasateren biolin bat pasa zen, ezta?

Bai. 1993an Jean Baptiste Vuillaumek XIX. mendean Sarasaterentzat egin zuen biolina ekarri zidaten konpontzera. Nahiko ongi zegoen, baina giltzak egokitu behar izan nizkion eta arima ere nahiko eroria zuen. Biolin hori Udalarena da eta Sarasateren lehiaketan Ruggiero Ricci biolin jotzaile handiak eman behar zuen azken emanaldirako doitzeko ekarri zidaten. Armairu baten barruan zeramatzan 80 urte baino gehiago eta tresna bat jotzen ez bada lokartu egiten da. Orain beira-arasa batean dago, baina nire ustez hobe lukete berriro erabiltzea, ez lokartzeko.

> ***Sarasateren biolinak armairu baten barruan zeramatzan 80 urte baino gehiago eta tresna jotzen ez bada lokartu egiten da. Orain beira-arasa batean dago, baina nire ustez hobe lukete berriro erabiltzea, ez lokartzeko***

Zure irudikoz ofizio hau behar bezala baloratua dago?

Bai. Artisau lana asko baloratzen da, batez ere musikari profesionalen artean. Haien musika-tresna ofizioaren ardatza da beraientzat. ●

Gezurrak, engainuak eta lapurretak

ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Beti izan da boterearen dimentsio garrantzitsu bat irudipenen maneiua munduko gertaeretan. Orain protagonismo osoa berri faltsuek dute; halere, hauek jazartzeko Mendebaldeko gobernuek, hedabideek eta unibertsitateek sortu dituzten ikerketa zentroek ez dituzte finkatu zein ezaugarri izan behar dituen berri faltsu batek. Izan ere, *fake news* eta egia-ostea bezalako kontzeptuak propaganda gerrarako tresna gisa sortutakoak dira eta beraz, sortzaileek nahiago dute kontzeptuak lausoak izatea; bestela, ezaugarriak ondo zehaztuko balira, herritarrek identifikatu ahal izango lituzkete beraien gobernuetatik eta hegemoniko diren hedabideetatik zabaltzen diren berri faltsuak.

Gezur borobilak eraikitzea ez da ohikoa arriskutsuak direlako, estalgabetzen badira prezioa oso handia izan daiteke hedabideentzat edota gobernuentzat. Baina kasu gutxi batzuetan erabili egiten dira *salbuespenezko* egoeratan edota operazio bereziak bultzatzeko. Gainerakoan, manipulatzeko tresna arruntena agenda mediatikoaren kontrola da: zer sartu erabakiz, berri batzuk gain ordezkatuz eta beste batzuk azpi ordezkatuz. Mekanismo horren bertsio gogorrena omisioak dira.

Berrien edukiari begiratuta manipulazio tresna da egiaztapen falta duten informazioak hedatzea. Bertsio sofistikatuagoetan ustezko egiaztapen lausoak aurkezten dira iturri orokor, kutsatu edo asmatutakoekin. Orain modan dago norbaitek frogarik gabe burutzen duen akusazioa hedabideek kontrastatu gabe zabaltzea lau haizetara baldintza-adizkien gehiegizko erabilerarekin. Esate baterako, hedabideek Julian Assangeri buruz frogatu gabeko akusazioen gainean berri ugari kaleratzen dituzte kazetariaren irudia zikintzeko. Assangen atxiloketa egunean Ekuadorreko Gobernuak bere kontra eginiko frogarik gabeko akusazioak hedabide hegemonikoek behin eta berriro erreproduzitu dituzte. Horrela, Assangek enbaxadan bizi zuen bullyingari aurre egiteko hartu zuen balizko jarrera berriaren elementu zentral bilakatu nahi izan dute. Hau manipulazio mediatikoen klasiko bat da: berrien aurkezpen partzialaren interesaren arabera filtratuak. Adibidez, bazterreko elementu bat zentral bilakatzen da berriaren muina ezkutatzeko edo desitxuratzeko eta aldi berean, pertsona, gobernu edo herrialde bat zikintzeko eta estigmatizatzeko.

> Hedabideek Assangeri buruz frogatu gabeko akusazioen berri ugari kaleratu dute bere irudia zikintzeko. Ekuadorreko Gobernuak bere kontra eginiko frogarik gabeko akusazioak hedabide hegemonikoek behin eta berriro erreproduzitu dituzte

2016an AEBetako hauteskunde giro erdian Wikileaksek Hillary Clintonen emailak filtratu zituenean, berriaren muina filtrazioaren jatorria bilakatu zuten eta ez filtraturiko informazio larriaren edukia. Ordutik, Jugoslaviako gerran NATOko bozeramaile zen Jamie Shea-k erabilitako estrategia erabili dute, informazio eta berrien saturazioa kazetariak okupatuak izateko une oro errusiar ustezko esku-hartze kanpainan. Bitartean, ez da hitz egiten kontrastatuak eta dokumentatuak dauden berriez, ez dira sakonki ikertzen Wikileaksek eta Snowedenek filtratutako dokumentuak agerian uzten dutenak: Bernie Sandersen kontra egindakoak, AEBetako kanpo politika agresibo eta zikina, edo munduko sakeleko telefonoak, telebistak eta autoak CIAk zelatatzen dituela eta kontrolatu ditzakeela; arazoa baina, ustezko errusiar hacker batzuk eta berri faltsuak dira. Zeinen berri faltsuak ordea? Berriki Mike Pompeok, egungo AEBetako Estatu idazkariak azaldu du barrezka: "Ni CIAko zuzendaria nintzen. Gezurrak esan genituen, engainatu eta lapurtu genuen. Trebakuntzarako ikastaro osoak genituen. (Honek) Gogoratzen dizu amerikar esperimentuaren gloria". ●

Josteta, plazer eta erotismoaren alde

ANTTON OLARIAGA

ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Asko gustatzen zait munduan egoteko haurrek duten modua.

Hasteko, orainean bizi direlako. Unean unekoari erreparatzen diote bakarrik, horretara eramaten baititu denboraren joan-jinaz duten kontzientzia lausoak. Baina modu xumean ikasten ere horrela, gerora hain erraz ahantziko dugun egia borobila: instanteka baizik ez dela bizitza bizitzen ahal. Eta eskuetatik ihes egiten digula denborak, iraganaren minaz edo etorkizunaren esperantzan baizik bizi ez garenean.

Bizitzarekin duten harreman ludikoa ere inbidia emateko modukoa da. Jostatuz egiten dute lan, jolasaren bitartez dutelako mundua topatzen, harekiko harremana eraikitzen, edo bizipenari berez darion ikasketa barneratzen. Jostatuz egiten den bizitza batek baino ez du bizitzeko grina piztu edo bizipoza eragiteko gaitasuna, badakigu. Baina haurrak dira, beren ttipian, hori horrela dela jakinez bizitzeko buruargitasuna duten bakarrak. Bizitzea, gure errealitatea ezagutzea, sortzea eta eraldatzea baino ez dela jakitekoa. Eta ez al da hori, bada, jolastea?

Gero, haurren berezko freskotasuna dago. Autentiko izateko daukaten askatasun eta espontaneitate hori. Konbentzio kultural eta arbitrarioetatik urrun, beren desio eta beharren asetzea ezartzen dute bizitzaren jomuga eta ipar-orratz bakar, zorionekoak. Beren buruaren adiskide on bihurtzearen oparia lortuz horrela, beren esentziari leial bizitzearen altxorra. Natural-natural, kasik oharkabean.

Bai, gustatzen zait haurrek munduan duten kokalekua. Baina noski, benetako haur direnean. Edo, zehazkiago esan dezadan, hala izaten uzten diegunean. Haurtzaroko erregistroen errepresio gisa interpretatzen du gure kulturak heldutasuna, eta lehenbailehen gure antza har dezaten nahi izaten dugu horregatik heldu hantusteok, gu bezain burutsu eta zentzudun bilaka daitezela fite. Inorentzat eredugarri balitz bezala gure heldutasun serioa. Hain gris, zurrun eta karratua.

Bizitzari so egiteko ttipiek duten moduan datza bizitzak haurtzaroan izan ohi duen magiaren misterioa. Lehen aldi guziek duten emozio eta intentsitatearekin bizi dute munduarekiko enkontru bakoitza, eta guzietan dute, noski, harridura eta lilura sentitzen. Errealitatea beti begi berriekin arakatzeko trebezia horrexek du bizitza miragarri eta poetiko bilakarazten, ongi begiratzen jakinez gero, beti delako desberdina eta berria inguratzen gaituen guziaren ñabardura. Behin ere ez da bizitza estatikoa, sekula ez aspergarria.

Eta gorputzean bizi dira. Emozio eta sentsazioen tenplu sakratuan dute bizitokia, gure plazer ororen iturburu eta kokaleku den horretan, andere eta jabe. Gorputzaren bitartez erlazionatzen dira, eta sentsorialitatearen erreinuan dena denez sentsualitate, gozamen eta jakin-min, azaletik beretik dario erotismoa haurren bizitzari, borborka, dotore, lotsagabe. Begi, irri, mihi, fereka, hots, azal eta mugimenduen hizkuntzan mintzatzen dira, zehatz eta zuzen. Harik eta aginte-makila arrazoiaren esku erorita, hitzen bidezko komunikazioaren monopolioa inposatua izanen zaien arte.

Hitzez adierazi ahal balitz bezala sua eragiten duen begirada baten txinparta, izara azpiko iraultza ttipiek erraietan sortzen duten lurrikara, zure existentziaren koordenada guziak kolokan jartzen dituen kilimaren dardara, edo amorantearen lepotik sabelpera musuka igaro bideetan aurkitu dituzun zaporeen gazi-gozoa. Lagun berri batekiko lehen jolasen zirrara. ●

Enpresen rola

ANDONI MUJIKA
IRAKASLEA

Lehenengo apuntea: jarduera sozial, ekonomiko, kultural eta humanoan gehiago eragiteko beharra ez dago eztabaidan. Bigarrena: nahiko onartuta dago lanean lortzen dugun gogobetetze maila txiki samarra dela askorentzat.

Ba bi uste horietatik abiatuta, lerro hauen bidez mahai gainean jarri nahi da helburu horietara gerturatzeko aktore "berri" bat (enpresa) aktibatzea inportantea izan daitekeela. Baina horretarako, estereotipoen hesietatik ihes egin eta esparru sozial eta humanoaz arduratzen hasi behar dute erakunde ekonomikoek. Enpresa barrura zein kanpora begira, rol berria, integralagoa, bere gain hartu dezakete, eta horrela, eragile ekonomiko errentagarri izateaz gain, aktore sozial eta humano nagusietako bat bihur daitezke. Ezohikoa da erabat, baina pentsaezina bezain ahaltsua ere bai.

Gogora dezagun enpresen bereizgarri nagusia dirua irabaztea dela, eta gertatuko da, argi dago. Aldaketarik nahi ez duen enpresa askok horixe izaten jarraituko duela, jakina da hori. Hala ere, eta nolabait, esaten diharduguna posible dela frogatzeko, esan dezagun badirela enpresa-esperientzia bizi eta errealak, beren jatorrian apurtzaileak izan zirenak eremu honetan. Eta kontzepzio ekonomizista mehe hori gainditu egin zuten. Adibidez, gizarte konpromisoan, enpresaren jabetzan edota parte-hartzean badaukagu hori erakusten. Izan ere, enpresaren helburua osoagoa eta humanoagoa izateak zentzu askoz handiagoa ematen dio proiektu ekonomiko huts bati eta, gainera, zilindrada handiko motore bat pizten da komunitatearen biziberritzeko.

Aurreiritzirik eta beldurrik gabe pentsatzen jartzen bagara, ohartuko gara enpresek zenbait arlo garatzeko beste edozein erakundek baino potentzial handiagoa izan dezaketela. Plataforma oso eraginkorrak izan litezke, ze beraien baitan pertsonak, bitartekoak, kudeaketa gaitasuna, denbora eta sentsibilitatea daude.

Aipa dezagun, baita ere, bide honetan estrategia nagusia zera litzatekeela: "Enpresa bera eraldatu inguruko eraldaketaren traktore izan dadin". Beste era batera esanda, proposatzen diren helburu berri hauek enpresa barruan zein kanpoan garatzekoak liratekeela. Ze bi espazio horietan batera gertatuko da, halabeharrez, eraldaketa prozesua.

Amaitu baino lehen, goazen zehaztera labur, honezkero argi samar egongo den arren, lantokiko markora ekar ditzakegun zenbait arlo berri; esate baterako, lankidetza, barne-demokrazia, justizia soziala, hegoaldea, euskal kultura, ingurumena, ekintzailetasuna, hezkuntza. ●

Japoniar turistak

EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Ez duzu zehazki gogoratzen noizko kontua den; hau da, noiz ikasi zenuen *sozialki* japoniarrak oporretan joaten zirenean argazki makinak etengabe erabiltzen zituztela. Bikotekideari galdetu diozu zeure informazioa kontrastatu nahian, baina ez zarete ados jarri. Kasualitatez-edo, bi egun geroago, Valentzian, bertako fallei buruzko museo batean aspaldi ikusi gabeko eszena ikusi duzue biek: hiru turista japoniar makina banarekin argazkia egiten ari dira sua hartzeko prest dagoen fallari. 1991ko data du satiraz egindako maketak.

Garai batean ikasitako estereotipoak badu egiatik, estereotipoei egozten ohi zaien modura. Eta badu, halaber, estereotipoei egozten ez zaien baina maiz izaten duten burlatik. Izan ere, ohitura bitxia zen japoniar turistena: ikusten zuten oro argazkiz erregistratu beharra. Mekanismo kulturala ezaguna da, eta atenporal samarra: bestearen ohiturak ezberdinak direnean eta, are, ulertzen ez direnean, trufa egitea aukera erraza da.

Hamarkada gutxi batzuk joan dira –oraindik ez duzue data adostu–, eta orain geu bide gara argazkizale porrokatuak. Japoniar turistak. Bukatu dira irri-burlak. ●

Kontuz, ileak

ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Ile bat transgresorea da berez, izatez; errebeldea, intsumisoa, bihurria, apurtzailea, ausarta. Tokiz kanpo egon ohi da gehienetan. Deserosoa da sarri. Arrain zoparen platerean, luxuzko hoteletako perfumedun izara zurietan, bainerako ura urmaeltzen duen buxatutako hoditerian, bibote izatera iristen ez den nerabearen ezpain gaineko esparru minatuan, maitale kartsuaren ahoan, edozein emakumeren gorputzean... Traba egiten du ia beti.

Besapeetakoak politizatzen asmatu du zenbaitek dagoeneko. Buruhauste gehixeago sortu ohi dituzte, ordea, iztarteetatik iztarretara hedatzen direnek, zangosagarretakoek, orkatiletakoek, bi bekainen tarteko gunean sortzen direnek, belaunburuetakoek, belarri azpitik masailezurretarantz doazenek... Baina ari gara. Hitz egin dugu publikoki gaiari buruz, madarikatu dugu kanon estetiko zapaltzailea depiladoraren torturarako kamila deserosoan, oihu egin nahi eta ezinean, hanka zabalik eta izerdi patsetan geunden bitartean. Saldu dizkigute mila teknika ezberdin –bide batez, denak mingarri–, mila produktu eta negozio berritzaile, eta saldu nahi izan digute hauen artean aukeratzeko nolabaiteko askatasuna.

> Bizitzan lehen aldiz aditu ahal izan dut norbait titiburuen inguruan agertu ohi diren ile bakan kiribilduei buruz umorez hizketan –eta, kasu honetan, kantuan–

Telebistako iragarkiek ahots alaiz gomendatu dizkigute ileek azken orduko plan eguzkitsu bat inola ere izorratu ez diezaguten erosi beharrekoak. Pixkanaka ulertarazi digute zenbateraino diren hil ala biziko, zenbateraino baldintzatu gaitzaketen. Gorpuztu dugu opresioa eta borrokatu dugu norberak kentzeko edo ez-kentzeko izan dezakeen nolabaiteko aukera ere.

Eta, hala eta guztiz ere, bi asteburutan jarraian harritu naute gune feministetan egindako saioetan bertsokide izan ditudanetako bi emakumek kantatutakoek. Oholtzan nahiz handik kanpo, bizitzan lehen aldiz aditu ahal izan dut norbait titiburuen inguruan agertu ohi diren ile bakan kiribilduei buruz umorez hizketan –eta, kasu honetan, kantuan–.

Baliteke ordura arte norbaitek bakarra zela uste izatea. Bere gorputzak pintzekin lehenbailehen erauzi beharreko arrarotasun bat gehiago zuela ondorioztatuko zuen agian. Ahalik eta azkarren ezkutatu beharreko bitxikeria bat gehiago.

Eta kalkulatu nahi izan nuen zenbat aldiz errepikatu izan dugun esaldi berbera; izendatzen ez dena ez dela existitzen. Eta berretsi nuen zenbat lan daukagun egiteke, zenbat borroka eta sormen lur ibiltzeke. Zenbat errealitate zati ditugun oraindik aipatzeke, ahoskatzeke, kantatzeke, kontatzeke.

Existitu arazteke. ●

ARGIA

Bizi nahi duen herria!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

Jende gehiagori ahotsa emateko, lagun gehiagorengana heltzeko eta eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

ARGIA

1919 · 2019

Zerukotik lurrekora

Emanaldi guztiak: **San Telmo Museoa** Donostia **19:00**

Maiatzak 21 asteartea

Koldo Izagirre

Mendearen umeek munduari desafio

Hitzaldia

Maiatzak 22 asteazkena

Antton Olariaga
Joseba Larratxe

100 urte, ehunka irudi

Hitzaldi ilustratua



Maiatzak 24 ostirala

Joxemari Ostolaza 'Xalbardin'
Josu Landa
Malores Etxeberria

Enpeinatzea ez bada libre

Errezitala

Maiatzak 28 asteartea

Elixabete Garmendia

Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat

Hitzaldia

LAGUNTZAILEA

STM San Telmo Museoa · Donostia San Sebastián · donostia kultura

BABESLEAK

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra · Euskadiko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Bizkaia foru aldundia · Gipuzkoako Foru Aldundia · Oiartzungo Udala · Oiartzun Kultura · LABORAL kutxa · eke icb Euskal Kultur Erakundea Institut Culturel Basque

FRANKISMOAREN AMAIERAREN...

BURGOSEKO PROZESUA

ETAko buruzagi eta kideen kontrako 1970eko gerra kontseiluaren oihartzuna giltzarri izan zen borroka antifrankista indartzeko. Irudian, epaituen senide eta lagunak Burgoseko Gobernu Militarrera sartu nahian.

HASIERA

ARTEKALETIK BURGOSERA

JUAN MARI ARREGI

Francoren diktadurarekin amaitzea posible zela erakutsi zuen lehen mugarria izan zen Burgoseko Prozesua. 1970eko gerra kontseilu hartan, epaile izatetik epaitua izatera igaro zen erregimena. Baina hor gertatutakoa ulertzeko, gutxienez urtebete atzera egin beharra dago: 1969ko polizia-sarekada, tortura eta erbesteratze masiboetan baitauka jatorria. Urte beroa bizitu zuten orain 50 urte Euskal Herrian.

Burgoseko Prozesua urtebete lehenago hasi zen, 1969ko apiril eta maiatzean, duela berrogeita hamar urte hain justu; eta orduan gertatutakoaren lekuko zuzen izan nintzen. ARGIA irakurtzen duten belaunaldi gazteek seguruenik ez dute jakingo ordukoaren berri, erreferentzia sotil batzuk kenduta.

Gerra kontseilu hark kinka larrian izan zituen, ez soilik euskal gizartea, baita Espainiako Estatukoa eta mundukoa ere. Erregimen frankistaren barruan, agintari militarrek bederatzi heriotza zigor eskatu zituzten ETAko sei militante eta zuzendariren kontra: Mario Onaindia, Unai Dorronsoro eta Xabier Larenak heriotza zigor bana jaso zuten; Eduardo Uriarte, Jokin Gorostidi eta Xabier Izko de la Iglesiak aldiz zigor bikoitza. Auzipetutako hamasei lagunei, bestalde, dozenaka urtetarako kartzela ezarri zieten, erakunde armatukoa izan edo kolaboratzea egotzita.

Epaiketak sorrarazitako nazioarteko presioaren ondorioz heriotza zigorrak 30 urteko kartzela zigorragatik ordezkatu zituzten. Burgoseko sumario hartan geunden beste batzuk, ETAko militante Mikel Etxeberria edo ni neroni kasu, ezin izan gintuzten epaitu "leku ezezagunen batean" edo "matxinatuta" egoteagatik.

ORTZI-MUGA HILGARRIA

ETA 1958an jaio zen. EAJren ordura arteko jarduteko moduarekin konforme ez eta euskal erakunde armatuak bokazio independentista eta sozialista erakutsi zuen segituan. Nolanahi ere, haren arduradunek ETAren sorrera 1959ko uztailaren 1ean kokatzen dute, Jose Luis Alvarez Santacristina *Txelis* buruzagiari Bidarteko sarekadan harrapatutako paperetan azaltzen omen denez.

60ko hamarkadan Euskal Herria borborka zegoen, lehen langile greba gogorrek (Laminaciones de Bandas, Labe Garaiak, Bacbock Wilcox…), eta Maiatzaren Leheneko nahiz Aberri Eguneko legez kanpoko ospakizunek markatuta. Gainera, ETAk langile frontea osatu zuen eta indar armatu gero eta garrantzitsuagoa bihurtu zen. Horren aurrean, errepresio laboral, sozial eta sindikal itzela zabaldu zuen frankismoak, eta milaka lagun torturatu, kartzelaratu edo erbestera bidali zituen.

Zalantzarik gabe, 1968 urteak ortzi-muga hilgarria erakutsi zuen euskal herritarren eta Espainiako Estatuaren arteko erlazioan. Urte hartako ekainean ETAren eta guardia zibilen arteko lehen konfrontazio armatua izan zen. *Txabi* Etxebarrieta (1944-1969) ETAko kideak eta José Pardines guardia zibilak bizia galdu zuten Adunan eta Tolosako Benta-Haundin. Erregimenak debekatu egin zituen Etxebarrietaren aldeko hiletak, eta horrek mobilizazio handiak sorrarazi zituen –batez ere Bizkaian–, tortura eta atxiloketa ugarirekin.

Egoera hain zen muturrekoa, Bizkaiko abade batzuok Bilboko Gotzaindegia okupatu baikenuen birritan, ekainean eta uztailean, Elizak frankismoarekin zuen konplizitatea salatzeko. Bi hilabete geroago, errepresio egoerak bere horretan jarraitzen zuela ikusita, Derioko Seminarioan itxi ginen 20 egunez eta gure salaketa Pablo VI.a aita santuari helarazi genion.

Ondoren, ETAk Melitón Manzanas polizia eta torturatzaile ezaguna hil zuen; haren eskuetatik igaro ziren atxilotuetako asko. Francoren gobernuak amorratuta erantzun zuen eta 1969ko urtarrila eta martxoa artean salbuespen egoera ezarri zuen, lehenik Gipuzkoan eta gero estatu osoan. Errepresioa izugarria izan zen:

> ***1969ko maiatza eta ekaineko 'ehizaldiaren' ondorioz batzuk polizia-etxetik igaro ziren eta beste batzuek muga gurutzatu behar izan genuen: Hirurehun lagun inguruko jende-oldea***

ehunka lagun atxilotu eta torturatu zituzten. Hala, klandestinitatean zeuden ETAko kideak berrantolatu egin behar izan ziren –poliziaren lehen helburua haiek kosta ahala kosta eliminatzea baitzen–. Horretarako, erakundearen zuzendaritzaren bilera bat antolatu zuten 1969ko apirilean Mogrovejo herrian, Kantabrian.

Bilera ezin izan zen egin ordea. Apirilaren 9an Bilboko Artekalen izandako sarekada baten ondorioz harrapatu zituzten denak 24 orduren buruan [ikusi koadroa gertaera horren inguruan]. ETAren buruzagitzaren kontrako lehen kolpe gogorra izan zen hura; 1969ko abenduko epaiketa militarraren ondoren, ETA V. eta ETA VI.aren arteko banaketa gertatu zen.

Artekalen poliziak Mikel Etxeberria *Makaguen* larri zauritu zuen. Egun berean ETAko militantea harrapatzeko polizia operazioa jarri zuten martxan, Fermin Monasterio taxi-gidaria hiltzea egotzita. Herioan zela, laguntza eskatu eta eztabaidan hasi zirenean, gainera zetorkiola uste zuelako hil zuen halabeharrez taxista, berriki jakin den testigantza baten arabera. Baina Etxeberriak elkartasun sare harrigarri bati esker egin ahal izan zuen ihes Orozkotik Kataluniako Pirinioetan barrena, ia bi hilabete ezkutatuta egon ostean. Ehunka kolaboratzaile eta erizainek lagundu zioten eta ihesaldian euskal apaiz talde bat ere inplikatu ginen. Operazio horrek, ordea, errepresio basati eta handienetako bat ekarri zuen, atxilotu, torturatu eta erbesteratutako pertsona ugarirekin.

12 URTEKO KARTZELA, GOSE GREBA BATENGATIK

Elizaren isiltasuna zela-eta, Bizkaiko abadeen Gogor taldeko bost kidek gose greba bati ekin zioten Bilboko Gotzaindegian, 1969ko maiatzaren 30ean. Greba horrek hamar eta hamabi urte arteko espetxe zigorrak ekarri zizkien eta bere osotasunean bete behar izan zituzten Zamorako apaiz-kartzelan, bereziki euskal abadeak zigortzeko sortua, nahiz eta galiziarrak, katalanak eta madrildarrak ere giltzapetu zituzten bertan. Josu Naberanek eta Alberto Gabikagogeaskoak 12 urteko zigorra jaso zuten; Julen Kaltzadak , Xabier Amurizak eta Nikola Telleriak 10 urtekoa. Horretarako, berehalakoan epaitu zituzten Burgoseko tribunal militar baten aurrean, greba igaro eta hamaika egunera.

Duela mende erdi publiko egin zuten agirian azaldu zutenez, Bilboko Gotzaindegian itxialdia hasi zuten "gure Herrian zapaldutakoen alde protesta eta deiadar egiteko". Hitz horiek oso ondo erakusten dute zer giro sozio-politiko zegoen. "Jarraitzen dute ukatzen giza eskubide oinarrizkoenak –diote dokumentu berean–, herritarrak pertsegitzen dituzte, atxilotu,

'EUSKAD ETA ASKATASUNA' LIBURUTIK

LANGILE GREBAK. Langileek greba gogorrak egin zituzten 60ko hamarkadaren amaieran eta erregimenak errepresioz erantzun zuen. Argazkian, Ezkerraldeko lantegietako beharginak 1969an.

torturatu, eta zenbaitetan ihes egin behar izaten dute espetxeratuak ez izateko indarrean dagoen erregimenaren menpeko tribunal batek kondenatu ostean".

Abadeek gogorarazi zutenez, "ehun langile inguru komisariatik igaro eta kaleratuak" izan ziren lantegietako greben ondorioz. Giza-ehiza antzeko bat ere salatu zuten, tiroketa eta torturekin: "Aukera politiko legitimo baten alde borrokatzen dutenak kriminal gisa hartzen dituzte". Grebalarientzat, ordea, krimena erregimenak egiten zuen: *Terrorismo eta Bandidajearen Legea* erabiliz, militarrez osaturiko epaimahaiak heriotza zigorrak ezartzen zituen. Gainera, poliziak "salatariak ordaintzen" zituen eta komunikabideek informazio faltsua ematen zuten.

Gauzak horrela, Bilboko administratzaile apostoliko Jose María Cirarda gotzainari eskatu zioten "biolentzia hori guztia amaiarazi eta poliziaren torturak salatu" zitzala.

JENDE-OLDEA IPARRALDERA

1969ko maiatza eta ekaineko "ehizaldiaren" ondorioz batzuk polizia-etxetik igaro ziren eta beste batzuek muga gurutzatu behar izan genuen. Hirurehun lagun inguruko jende-oldea. Erbestera jo genuen gehienok Donibane Lohizunen, Miarritzen edo Baionan amaitu genuen. Aurrez bazegoen jenderik herri horietan, ETAren jarduna hasi zenez geroztik ihes egindakoa. Aitzitik, ez zegoen babes sare finkorik, norberak bere kabuz antolatu eta bere arazoak ahal bezala konpontzen zituen.

Testuinguru horretan sortu zen euskal errefuxiatuen aldeko lehen egitura: Anai Artea. Ezker abertzalearen historia ikertu dutenek Telesforo Monzon eta Piarres Larzabal dituzte sortzailetzat, eta egia da erakunde hura presidi tu zutela, baina martxan jarri genuenok haien izenak behar genituelako, ipar zein hego Euskal Herrian aitortza ofiziala zuten pertsonak zirelako.

HONELA SORTU ZEN ANAI ARTEA

Anai Artearen sorrera bertatik bertara bizi izan nuen. 1969ko maiatza zen ediktu militar batek ni harrapatzeko agindu zuenean. Artekalen eta Mogrovejon ETAren buruzagitza desegin zutenean, *Makaguen*-en ihesaldiaren ondorioz nik ere alde egin behar izan nuen eta Donibane Lohizunen lekutu nintzen.

Lehen momentutik konturatu ginen egunetik egunera gero eta errefuxiatu gehiago ari zela iristen eta ez zegoela haiek artatzeko ezer. Egun batzuez Piarres Lartzabal Sokoako apezaren etxean egoteko aukera izan nuen, Amadeo Rementeria erbesteratu eta burkidearekin batera. Egoera hura ikusita, bion artean etxe bat bilatzen hasi ginen mugaz bestaldetik iristen zen jendea bertan hartzeko asmoz. Donibane Lohizune erdiguneko etxebizitza handi bat alokatu genuen azkenean, altzariz bete eta frankismoaren errepresiotik ihesi zetozenak babestu genituen denbora batez toki horretan, beste inolako antolaketarik gabe.

Peoi lanak eginez irabazten nuen diruarekin ordaindu genuen hasierako alokairua: goizean portuan aritzen nintzen, arratsaldean hotel batean eta gauez fruitu biltegian. Horrez gain, Hegoaldeko abadeek ere laguntzen ziguten diruz eta jakiz; haien ordezkari Iñaki Aurtetxe eta Felix Iraurgi aldizka etortzen zitzaizkigun bisitan.

Bitartean, Piarres Lartzabalekin harremana mantendu nuen, eta Sokoako bere etxera ia arratsaldero joaten zen Telesforo Monzonekin ere bai. Bergarako politikari abertzalea Angel Arregi lagun zuela etortzen zen sarritan; azken honek ederki ezagutzen zuen tokiko administrazioa, urte asko baitzeraman Donibane Lohizunen bizitzen. Harrituta zeuden Amadeok eta

Mogrovejoko intxaurrondo zaharrak mutu jarraitzen du

URKO APAOLAZA AVILA

Europako Mendien mazeletatik zintzilik dagoen Mogrovejo herrian (Kantabria, Espainiako Estatua), 1969ko apirilean ETAren buruzagitzaren kontra poliziak egindako sarekada mugarri izan zen talde armatuaren historian eta Francoren diktaduraren bilakaera politikoan: hemen hasi zen Burgoseko Prozesua.

Liébanako haran sakonean dago Mogrovejo. Gaur hara joaten denak, argazki turistikoentzako toki bat baizik ez du aurkituko, Morra de Lechugales eta Pico del Acero atzean dituela, azkeneko hau garai bateko meatzaritzaren lekuko. 2017an Kantabriako udalerri politena izendatua, kaleak txukun jarrita dauzka, eta informazio panelek dorre feudalaren edo auzo-eskola zaharraren berri ematen digute, baita paisaje alpino hauetan Heidi pelikula filmatu zutela gogorarazi ere.

Baina gertaera historiko garrantzitsu bat ahantzi dute gida turistikoetan. 1969ko apirilaren 11n ETAko lau buruzagi tirokatu eta atxilotu zituzten herri honetan, frankismoko salbuespen egoera basatienaren erdian.

Melitón Manzanas komisario torturatzailearen hilketak zabaldu zuen ehiza. Lehenik Gipuzkoan, gero Espainiako Estatu osoan, salbuespen egoera ezarri zuen erregimenak. ETAko zuzendaritzako kide batzuek, euren burua gero eta estuago ikusirik, Mogrovejora jo zuten. Kantabriar herrixkako etxe batean egon ziren denbora batez, mendigoizaleak bailiran, auzokoekin karta-jokoan eta tabernan solasean, zuzendaritzako gainerako kideak noiz iritsiko zain. Baina ez ziren sekula iritsi.

Apirilaren 9an Bilboko Artekalen poliziak segada jarri zien Mario Onaindia, Josu Abrisketa, Bittor Arana eta Mikel Etxebarria *Makaguen*-i. Arana eta Etxebarria larriki zauritu zituzten, baina azkeneko honek ihes egitea lortu zuen –taxista baten heriotza tarteko–. Bere pertsekuzioak inoiz ikusi gabeko polizia operazio handiena ekarri zuen Orozko inguruan, eta hala ere elkartasun sare zabal bati esker mendirik mendi eraman ahal izan zuten mugaz bestalderaino. Intra-historia horren zati bat kontatu digu erreportaje honetan Juan Mari Arregik.

Artekaleko atxilotuak torturatuz iritsi ziren brigada *politiko-soziala* eta guardia zibilak Mogrovejoraino, bi egun geroago. Goizeko seiak inguruan berrogeita hamar agentek intxaurrondo handi baten ondoan zegoen etxea inguratu zuten. Barruan, Jone Dorronsoro, Juan Etxabe apaiza, Teo Uriarte eta Enrike Gesalaga. El Diario Vasco egunkariak, iritzi publikoa engainatzeko helburuz osatutako gezurrezko bertsio ofiziala baino ez zuen kontatu: "*Los cuatro presuntos miembros de la E.T.A abrieron fuego, que fue contestado por aquellos*". Baina Burgoseko gerra kontseiluaren epaiketan argi geratu zen bezala, egiaz guardia zibilek abisurik eman gabe tirokatu zituzten etxe barruan zeudenak, etengabe, hainbat minutuz.

Atxilotzeko unean Gesalaga zauritu zuten bala batez, eta Etxabek estremaunzioa eman zion badaezpada. Gogoan izan, 1969an gaude eta piztia frankista haserre dago oso.

Mogrovejoko eta Artekaleko atxiloketek lorratz sakona ekarri zuten, historia hurbila aldarazteraino. Alde batetik, zientoka lagun atxilotu, torturatu, eta beste hainbestek erbestera jo behar izan zutelako –kasu askotan euren bizitza betirako baldintzatu zuen egoera hark–. Eta bestetik, atxilotu guztiak gerra kontseiluan epaitu zituelako aparatu militar frankistak, eskarmentua eman nahian.

Baina Burgoseko Prozesuak herritar eta langileen artean sorturiko erreakzioak nazioarteko muga guztiak gainditu zituen: ETAren jarduna eta Francoren diktaduraren amaiera eskutik zetozela ulertu zuten askok eta askok.

Apiril hartatik mende erdia igarota, Vox alderdiaren hauteskunde kamioneta batek Covadonga intsurgentea aldarrikatzen du bide bazterrotan, Don Pelayoren lekaioak Mogrovejoko dorrean bezala. Eta intxaurrondo zaharrak mutu jarraitzen du. ●

Intxaurrondoaren atzealdetik eraso zuten guardia zibilek tiroka, haren geriza profitatuz.

ARGIA ARTXIBOA

ANAI ARTEA

Telesforo Monzon eta Piarres Lartzabal jo ohi dira errefuxiatu politikoak laguntzeko Anai Artea elkartearen sortzailetzat, baina beste batzuek jarri genuen martxan 1969an. Egunetik egunera gero eta errefuxiatu gehiago ari zen iristen Donibane Lohizunera, eta egoera ikusita, etxe bat alokatu genuen –peoi lanak eginez irabazitako dirua erabiliz–, altzariz bete eta ihesean zetozenak babesteko. Hura izan zen erakundearen ernamuina. Irudian, errefuxiatuen aldeko mobilizazioa Uztaritzen, 1979an.

biok egindako lanarekin, ordura arte beraiek ez baitzuten ezer egin errefuxiatuen aldeko inongo azpiegiturarik sortzeko.

Baina Amadeok Parisera alde egin zuen. Orduan, errefuxiatuen aldeko erakundea ofizializatzeko unea iritsi zela adierazi nien hiru pertsona horiei –Lartzabal, Monzon eta Arregiri–. Errefuxiatuentzat lana eta etxebizitza bilatzeko edo Paris, Bretainia nahiz Bruselara joateko zubia izango litzateke; azpiegitura unibertsal bat jende ororentzat, alderdi edo kolorerik gabekoa –iheslari gehienak, logikaz, egun ezker abertzale bezala ezagutzen dugun eremukoak ziren arren–.

Egitura horren ernamuina bagenuen, nire izenean alokatutako etxebizitza hain zuen ere. Baina erakunde gisa ezagutarazi eta aitortza lortzeko, beharrezkoa zen beraiek bezalako jende esanguratsuak presiditzea. Nire proposamena interesgarria iruditu zitzaien eta izena adostu genuen, Anai Artea. Antolakuntzarako, errefuxiatuen kolektibo guztiak (ETA, Cabrak, Euzko Abertzale Laguntza, abadeak...) ordezkaturik egongo liratekeen batzordea sortu zen –EAJ ere gonbidatu zen batzorde horretara, baina ezetz esan zuen, bere antolakuntza bazuela argudiatuz–. 1969 eta 1986 urteen artean, 2.000 euskal errefuxiatu baina gehiago lagundu zituen Anai Arteak. ●

Artikulu hau egileak berak idatzi eta argitaratzeke dagoen liburu bateko bi pasartetan oinarriturik dago

EuskarAbentura

Abenturak gazte euskaldunak pizten ditu

16-17 urteko 121 gazte elkartuko dira EuskarAbenturan uztailean. Euskal Herria zeharkatuko du helburu nagusietakoa gazteek euskara erabili eta eragile bihurtzea duen espedizioak. 2018ko edizioko emaitzek animatu dituzte antolatzaileak errepikatzera, besteak beste, ikusi baitute gazteen hizkuntza ohiturak, haien euskararekiko jarrera, aldatzen hasi direla.

ONINTZA IRURETA AZKUNE
EUSKARABENTURA

Gazteek bazekiten nora zihoazen. Lan bat egin behar izan zuten hautaketa prozesuan parte hartzeko eta motibazio gutuna idatzi ere bai. Bazekiten euskaraz garatuko zen hilabeteko espedizioan ibiliko zirela, are gehiago, beraiek zirela protagonista eta erantzule. Euskaraz aritzeko konpromisoa sinatu zuten espediziora joan aurretik. EuskarAbenturaren antolatzaileek gazte euskaldunak gonbidatu zituzten, euskarari eutsiko ziotenak, eta era berean, inguruan euskarari eusten eragingo zutenak.

Antolatzaileek nahita aukeratu zuten adin tarte hori, kontzientzian eragiteko garai egokia delako. Hala adierazi digu Ane Pedruzo elkarteko kideak: "Adin ona da ereiteko, berandu baino lehen klika egin dezaten, euskaraz bizitzeko jauzia eman dezaten". Pozik dira antolatzaileak; haien usteek eta datuek bat egiten dute. Alegia, gazteek kontzientzia hartu eta beraien artean komunitatea osatzeko lehen pausoak ematen hasi dira. EuskarAbentura hasi aurretik, bukatu berri, eta zazpi hilabetera hainbat galdera egin dizkiete gazteei. Euskara erabiltzeko zenbaterainoko motibazioa zuten galdetuta, batez beste 10etik 7,65 da puntuazioa espedizioa hasi baino lehen, eta 8,58 ondoren. Euskaraz nola moldatzen diren galdetuta, 10etik 7,85 da puntuazioa aurrez, eta ondoren 8,55. Zazpi hilabete ondoren egindako galdeketan, hizkuntza ohiturak batez ere zein esparrutan aldatu dituzten galdetuta %94k dio abenturako lagun berriekin ahalegindu dela, %61ak kalean lehenengo hitza egin duela euskaraz, eta %50ak dio bestelako lagunekin saiatu dela. Zazpi hilabete ondoren galdetuta ea hizkuntza ohiturak aldatu dituen egunerokoan, %67k dio euskaraz gehiago egiten duela, eta %24,7k dio ez duela aldaketarik egin. Azken ehuneko hori erantzun duten ia denak gune euskaldunetan euskaraz bizi direnenak dira.

Inkestez gain beste bide batzuen bitartez sumatu dute gazteengan eragitea lortu dutela. Esate baterako haien gurasoek eta irakasleek adierazi diete aldaketa nabaritu dutela. Hizkuntza ohituretan eragiteaz gain, gazteen komunitatea sortzen hasi da. Antolatzaileek jakin badakite 2018ko EuskarAbenturaren ondoren, udan, jairik jai ibili zirela hainbat gazte elkarrekin. Urrian futboleko euskal selekzioaren partida ikustera joan ziren Gasteizera antolatzaileak lagun. Eta Durangoko Azokan 2019ko espedizioa aurkezteko aitzakian ere elkartu ziren. Aurtengo uztailean iazko espedizioko 60 bat kidek elkarrekin kanpinera joatea erabaki dute, eta haien nahia eta antolatzaileen asmoa da egun horietako batean edo gehiagotan 2019ko gazteekin bat egitea. Horixe helburua: Euskal Herriko eta diasporako txoko guztietatik espedizioetan biltzen doazen gazteek komunitatea osatzea, euskarari heltzea, eta inguruan eragitea.

BEGIRALEEN TRESNAK EUSKARARI EUSTEKO

EuskarAbentura elkarteak bi liberatu ditu gaur egun eta matrikulazio garaian beste bi lagun aritu ziren eskoletan sustapen lana egiten, hiru hilabetez. Elkartekide guztiak boluntarioak dira. Soziolinguista bat dute taldean eta antolatzaileek beraiek aitortu digute iaz ahal zuten moduan prestatu zutela lehen edizioa. Iazko esperientzia baliatuta gehiago findu nahi dute bigarren edizioa. Hala, iaz baliagarriak izan ziren dinamikak berriz erabiliko dituzte eta beste batzuk berriak izango dira.

Hamaika kideko taldetan banatuko dituzte, hainbat ezaugarriren arabera: jatorria, errealitate soziolinguistikoa,

EUSKARAREN ERABILERA HELBURU NAGUSIETAKO BAT.
Hamaika kideko taldetan banatuko dituzte gazteak, hainbat ezaugarriren arabera: jatorria, errealitate soziolinguistikoa, hizkuntza ohiturak, lagunekin datozen ala ez, eta generoa. Argazkian, iazko edizioko abenturazaleak.

hizkuntza ohiturak, lagunekin datozen ala ez, eta generoa.

Iaz bezala, aurten ere, Euskal Herriko lurralde bakoitzean hango euskararen egoeraren inguruko hitzaldiak izango dituzte. Aurtengo berrikuntza *Hizkuntzaren zientzia eta munduko hizkuntza aniztasuna* hitzaldia izango da. Euskararenaz gain, munduko hizkuntza gutxiagotuen kontzientzia lantzea da helburua.

2018ko ekitaldian, sortu ziren egoeren arabera hainbat esku-hartze momentuan bertan prestatu eta probatu zituzten. Aurtengorako zakuan gordeta dituzte, erabili behar badituzte ere. Esate baterako euskararen *influencer* talde bat osatu zuten. Lider tankeran jokatzen zuten hainbatek gaztelaniara jotzen zutela antzemanda, kafe-bilera batera deitu zituzten. Lider rola hartzea proposatu zieten, beraiek euskarari gehiago heltzeko eta ingurukoekin gauza bera lortzeko. Gazteek serio hartu zuten egitekoa. Abian jarri zuten beste esku-hartzea Eusle metodoa izan zen. Talde bakoitzak eusle batzuk aukeratu behar zituen, hau da, euskarari eutsiko zioten lagunak. Talde batzuetan funtzionatu zuen eta beste batzuetan ez hainbeste.

Gune euskaldunetan eta erdaldunetan bizi direnen arteko aldeaz propio egin zuten gogoeta, sumatu zutelako gune euskaldunetako batzuk azpimarratzen zutela gune erdaldunetakoen euskara maila apalagoa, eta era berean, gune erdaldunetako gazteak haien euskalki gabeziaz lotsatzen zirela. Enpatia bultzatzeko lana egin zuten denen artean. Beste okasio batean, bikoteka jarri zituzten lanean, gaztelaniarako joera zuenak bikotekidea aukeratu behar zuen harekin euskaraz egiteko.

Lau esku-hartzeak hein handi batean inprobisatuak izan baziren ere, beren-beregi espediziorako prestatutako euskararen protokoloa izan zuten marko orokorra. Protokoloa erdiesteko Pello Jauregi eta Asier Lafuenteren aholkuak izan zituzten bidaide, besteak beste. Espedizioa baino lehen lan-talde osoak hizkuntzaren erabilera asertiboa bermatzeko formazioa jaso zuen GEU elkartearen eskutik.

EuskarAbentura elkarteko kideetako batzuek gazte garaian ezagutu zituzten helduek gazteak euskarara lerratzeko erabiltzen zituzten metodo desegoki batzuk. Ane Pedruzok adierazi digunez, ez dute nahi haiekin balio ez zuten metodoak errepikatzea, hala nola, zigorrak, mehatxuak edo gazteak tontotzat hartzea, "gaztelaniaz egiten badidazu ez dizut ulertzen" eta horrelakoak esanda. "Errespetuz, pertsonatik pertsonara, eta asertibitatez aritu ginen. Jaso zuten mezua eta ulertu zuten konpromisoa hartu zutela euskara erabiltzeko eta euskaran eragiteko. Modu kolektiboan eta positiboan kezka hori izatea lortu zen". ●

EuskarAbentura 2019

Bigarren edizioa

Uztailaren 1etik 31ra

16-17 urteko 121 gazte

Oinezko espedizioa
euskal geografia, kultura eta historia ezagutzeko.

31 etapa eta **783 kilometro**
Euskal Herrian barrena

Antolatzailea:
EuskarAbentura elkartea

Bahri
البحري
N. PINILLOS
N. PINILLOS
N. PINILLOS
N. PINILLOS

DFDS
GERRA BERTON HASI, BERTON AMAITU!
FEMINISTOK GERRAREN AURKA
BILBUTIK
YEMENERA

'GERRA HEMEN HASTEN DA' DOKUMENTALA

ODOLA DARIO GURE ARMA INDUSTRIARI

Munduko gerrak negozio potoloa dira Euskal Herriko ehun bat enpresarentzat. Bilboko portutik Ekialde Hurbilera, ontzi arabiarrak hara eta hona aritzen dira su-armez beteriko kontainerrak eramaten, hilean behineko maiztasunarekin. Handia da karga bakoitzean garraiatutako lehergailu kopurua: 31 tona, Gernika bonbardatzeko erabili zen beste. Geuk sortu, garraiatu eta saldutakoari erabilera guk ematen ez diogun arren, lan sektore honek kezka sortzen du gizartean. Hortik abiatuta egin dute *Gerra hemen hasten da* dokumentala.

GORKA PEÑAGARIKANO

Suhiltzaile batek uko egin zion arma kargamentu batean parte hartzeari duela bi urte, Bilboko portuan. Bizkaiko Foru Aldundiak esku hartu zuen: espedientea ireki eta hainbat urtez lana galtzeko zorian egon zen, protesta zaratatsuen bidez atzera botatzea lortu zuten arte. Ignacio Robles du izena suhiltzaileak, eta bera da, *Gerra hemen hasten da* dokumentaleko protagonistetako bat. Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak taldearen kolaborazioarekin burutu du proiektua Joseba Sanz zuzendariak; azken honekin izan gara. Alderdi teknikoa berak landu duen arren, edukia guztien artean zehaztu dutela azpimarratu digu.

Robles suhiltzaileaz gain, dokumentalean paraleloki agertzen den beste pertsona bat Faten da, Yemenen bizi den emakumea. Bertako errealitate gordinaren berri ematen digu: egunerokotasunaren parte bilakatu dira leherketa zein tiro hotsak. Kataluniako beste bi emakumeekin batera kudeatzen du *Solidarios sin Fronteras* Gobernuz Kanpoko Erakunde independentea –Yemengo independente bakarra–, astean zehar unibertsitatean klaseak eman eta asteburutan airelinea batean lan egiteaz gain. "Ahal duen guztia egiten du okerren dauden familiei, eta batik bat emakumeei, laguntzeko", dio Sanzek.

Roblesek egin zuen desobedientzia ariketa gertaera sinboliko gisa oroitzen du Sanzek, baina argi du pertsona batek bakarrik ezin duela Yemengo gerrarekin amaitu. Katearen maila bat errotik ateratzeak ordea, prozesua gera dezake eta hori da suhiltzaileak egin duena zuzendariaren hitzetan. Euskal ekonomiaren oinarrietako bat da armagintza eta datuak argiak dira. Ehun bat enpresa dira produkzioaren zati bat gutxienez –produkzio osoa zenbaitetan– sektore horretara bideratzen dutenak.

> ***Euskal ekonomiaren oinarrietako bat da armagintza, eta datuak argiak dira: ehun bat enpresa bizi dira egun bertatik***

Enpresa horiek ez dute inolako arazorik topatzen beraien jarduna aurrera eramateko. Hori gutxi balitz, instituzio publikoek diru-laguntza esanguratsuak ematen dizkiete, legeak debekatzen duen arren. Halaxe dio 2007an

onartutako legeak, *Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna* izenekoak: "Enpresak lagundu eta sustatzeko politikan, Eusko Jaurlaritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin". Dena den, aski jakina da hori ez dela horrela. Jaurlaritzak ezarritako enpresen I+G bultzatzeko programetan parte hartzen dute enpresa hauek, eta onuradun nagusiak dira. Armagintza, antza, teknologia berrien parte da. Halako eta bestelako xehetasunen berri eman zuen Estitxu Eizagirre ARGIAko kazetariak *Etxean uso kanpoan kondor* erreportajean duela urte eta erdi, Gasteizkoak kolektibo antimilitaristak *Estas guerras son muy nuestras* [Gerra hauek oso gureak dira] liburua kaleratu berritan.

MISILAK, MOTORRAK ETA KANOIAK

Aspaldidanik egiten dira armak Euskal Herrian. Jakina da 1492an Espainiako Errege Katolikoek Granadako Erreinua konkistatu zutenean Euskal Herrian egindako suzko armak erabili zirela. Lehen Mundu Gerran ere erabili ziren gurean fabrikatutako armak –dagoeneko bazeuden 40 bat enpresa–. Eibar edo Soraluze izan dira armagintzarekin lotura estuenetakoa izan duten herriak, baina izan dira beste hainbat ere XX. mendean; urte luzez herri askoren diru iturri nagusia izan da sektore hau. Nabarmena da bai herriarentzat zein estatuarentzat zer nolako garrantzia duen eta izan duen armagintzak.

> ***Halaxe dio 2007an onartutako legeak: Enpresak lagundu eta sustatzeko politikan, Eusko Jaurlaritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin***

Gernika da ziur asko aurreko mendean arma gehien ekoitzi zituen Euskal Herriko herria: Astra, Alkartasuna eta Talleres de Guernica enpresak zeuden bertan, eta azken hau zen Espainiako Estatu osoan arma gehien ekoizten zuena. Gerrako morteroak eta hauen munizioak, nabigaziorako lehergailuak eta mota askotariko granadak fabrikatzen zituzten, besteak beste. Esanguratsua da nori saltzen zizkieten produktuok: Talleres de Guernica eta Alkartasunak Ingalaterrari, Frantziari eta Italiari saltzen zizkien armak, eta Astrak aldiz, Alemaniari, hots, aurrez aipaturiko herrialdeen aurkariari. Azpimarragarria da, zer nolako garrantzia zuen estatuaren ekonomiarentzat halako enpresek zutik irauteak. Gernikako bonbardaketaren ondoren, tropa frankistek herria hartu eta hamar egunera, Francoren aginduz, berriz ere martxan jarri zuten Alkartasuna fabrika, berentzat lan egiteko.

Getxon, Zamudion, Markinan, Gasteizen eta Andoainen besteak beste, kokatzen dira gaur egun armagintzan jarduten duten ehun enpresa horietako batzuk. Sener enpresa da Europako arma ekoizle nagusienetako bat: Getxon dago, eta bereziki misilen nabigaziorako dronekin egiten du lan. Berriki Zamudion dagoen ITP enpresa erosi du, gerretan gehien erabiltzen den *Eurofighter* hegazkinen motorrak egiten dituena, besteak beste.

2004 urtera arte Gasteizen aritu da Ex-

Erreportaje hau ilustratzeko erabilitako argazkiak dokumentaleko fotogramak dira. Orriotan Yemengo eskola bat, Euskal Herritik bidalitako armen jomuga den herrialdea.

pal enpresa, egun Burgosen kokatzen da. Lehergailu nuklear txikiak produzitzen ditu intentsitate handiko lanaldiekin; asteko lau aldiko txandatze-sisteman egiten dute lan, laneguna hamar ordukoa izanik. Honen zergatia, dokumentalean azaltzen denez, negozio eta diru-iturria handia dutela da.

AGINTARIEN LOTURA ESTUA

Kargu politikoen eta arma enpresen arteko lotura ikusteko, Andoainen kokatzen den Sapa enpresa da kasu nabarmenetakoa. Urteak daramatza Jokin Aperribay Realeko presidenteak bertako buru. Garaian garaiko Gipuzkoako politikariek ere izan dute noizbait enpresan nolabaiteko parte hartzea. Zuzendaritzako kide izan dira Ramon Labayen eta Justo Espín, hurrenez hurren Donostiako eta Andoaingo alkate izandakoak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensio 2015 arte Sapako zuzendari komertziala izan zen.

Saparen ekoizpenaren %100 produkzio militarra da. Eusko Jaurlaritzak hau babestu eta sostengatzea –legearen aurkakoa da– nola den posible galdegin du Joseba Sanz dokumentalaren zuzendariak. Batik bat, kontuan izanda Jaurlaritzak ekonomiaren garapenerako proiektuen diru laguntzen barnean, Sapari hiru milioi euro baino gehiago eman zizkiola 2007. urtean.

Euskal Herriko Unibertsitateak ere badu kontu honetan esku hartzea. Dokumentalaren zuzendariak dioenez, ez errektoretzak ezta hauen etika batzordeak ere ez du *Gerra hemen hasten da* lanean agertu nahi izan. Dokumentala lantzen ari zirela jakin zuten EHUren Ingeniaritza eskolak harremana duela armagintzan jarduten duten hainbat enpresarekin, tartean Zamudion kokatzen den ITPrekin. Ikasleek praktikak egitea eska dezakete bertan unibertsitatearen bitartez.

Inbertitzaile handiak dituzte armagintzan aritzen diren enpresek. BBVA banku-erakundea da horietako bat, Espainiako Estatu osoan gehien inbertitzen duena: orotara 2.600 milioi euro inguru jartzen ditu. Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko enpresetan ez ezik, nazioartekoak ere finantzatzen ditu. Gaur egun, gainera, errefuxiatuen mugimendu masiboak zelatatzeko erabiltzen diren droneak fabrikatzen dituen enpresetan inbertitu du BBVAk. "Akziodunen batzarrean salatu izan dugu eta jakitun dira bertako denak, baina berdin zaie, irabaziak dira haientzat", azaldu zuen *BBVA sin armas* kanpainako kideak, "Euskal Herriak kapitalari planto" jardunaldien barnean.

BILBON EZ, BAINA ZIUR BESTE NONBAIT BAI

"Borrokak aurrera darrai", diosku Joseba Sanzek: "Dokumentalarekin ari ginenean 14 hilabetez jarraian kargatu zuten Bilboko portuan, baina ondoren, gure ustekabez, ontzia Santanderreko portuan (Kantabria) agertu zen eta urtebetez aritu dira bertan". Azken hilabeteotan, baina, ez dute ontzien arrastorik –Interneteko plataforma baten bitartez jarraitzen dituzte–.

> ***BBVA banku-erakundea da Espainiako Estatu osoan armagintzan gehien inbertitzen duena: orotara 2.600 milioi euro inguru jartzen ditu***

Are zailagoa da jakitea non dauden halako ontziak, protestak protesta, kontu handiagoz aritzen baitira lanean. Iristear direla satelitea kendu izan dute mapetan ez azaltzeko –ez da legezkoa–, baita ontziaren izena ezabatu eta atzera berriz margotu ere. Saudi Arabiari, Yemeni edo eroslea den dena delakoari ez zaio axola halako lanak hartzea, hori dio Sanzek. Azkenaldian –erreportaje hau idaztean– ez Bilboko portutik ezta Santanderretik ez dira pasa. Motrilen (Granada, Andaluzia) egon litezke, agian, lehenago ere egon baitira bertan. Dena den, borrokarekin jarraitu eta gaia gizarteratu behar dela dio Sanzek. ●

Eskuin muturraren gorakada

Italiako Legaren esperientzia Europako liga xenofoboa osatzeko

Maiatzeko europar hauteskundeak begi bistan, Italiako Barne ministro Matteo Salvinik Europako alderdi xenofoboen liga eraikitzeko proposamena luzatu du. Apirilaren 4an zenbait alderdi ultraeskuindarrekin batera Milanen konferentzia egin zuen. Ikusteko dago Marine Le Pen frantziarrak edo Viktor Orban hungariarrak, pisu handiko bi aipatzearren, proposamena babestuko duten.

XUBAN ZUBIRIA

Italian bi hamarkada dira eskuineko populismoa fenomeno politiko bilakatu zenetik. Iparraldeko zenbait mugimendu autonomista batu ostean eratu zuen Umberto Bossik Lega Nord alderdia 1992. urtean. *Mani Pulite* izenez ezagun egingo zen prozesu judizialaren giro-soinuaren erdian, Di Pietro epaile milandarrak Italiako alderdi politiko gehienen legez kanpoko finantzaketaren frogak aireratu eta eskandalua lehertu zenean. Tesi xenofoboak oinarri hartuta, Italiako iparralde aberatsaren subiranotasuna aldarrikatzen zuen mugimendu bezala egituratu zen.

Ustelkeriak alderdiak erabat zipriztindu zituen garaian egoeraren larritasunak inflexio puntua ekarri zuen Italiako politikan. Horri mafiaren indartzea gehitu zitzaion, urte berean hil baitzituen mafiak Giovani Falcone epailea eta Paolo Borselino magistratua. Ezegonkortasun hark sorturiko haserrea kanalizatuko zuen tresna bikaina sortu zuen Bossik: Lega Nord. Egoera politiko nahasi hura probestu zuen Silvio Berlsconi enpresariak ere. Denbora gutxiren buruan, Italiako politikaren lehen mailara jauzi egingo zuten biek.

ELKARTUTA. FINLANDIA, DANIMARKA, ALEMANIA ETA ITALIAKO ESKUIN MUTURREKO ALDERDIAK BATU DIRA EUROPAKO HAUTESKUNDEETARAKO.

BOSSIREN LEGA NORD

PCI masen alderdia bere kontraesanetan itoitzen zen bitartean, Bossik berritasuna ekarri zuen agertoki politikora. Erromatik zetorren erretolikaren aurrean zuzen hitz egiten zuen lider gaztea zen bera. Hasierako ideal federalista, xenofobiaz hornitu eta subiranista bilakatuko zuen. Italia porrot egindako estatua zen eta hegoaldea iparralde langilearen kontura bizi zen, bere hitzetan. Mafiaren arazo kronikoaren errelatoari Napoli eta Siziliako "etorkinen arazoa" gehitu zien. Oinarri diskriminatzaile faltsu horien gainean hasi zen Padania bezala ezagutzen den lurraldearen burujabetza eskatzen Lega Nord.

Globalizazioak eta Berlingo harresiaren erorketak sorturiko galderei erantzuteko *legistek* Italia hegoaldean bilatu zituzten errudunak: *terroni*-ak, hau da, Sizilia, Calabria edo Napolitik herrialdearen iparraldera lanera joandako herritarrak. 1992an Bossik hauekin egindakoa errepikatzen ari da Salvini errefuxiatu eta etorkinekin. Mediterraneoaren beste aldetik datozenak dira orain txar guztien erantzule.

1994KO BERLUSCONIREN GARAIPENA

Aipatutako koiunturak eta estrategia komunikatibo bikainak eragin zuten Berlusconik 1994ko hauteskunde presidentzialak irabaztea. Gobernabilitatea

bermatu eta ezkerra alboratzeko Lega Nord-en beharra zuen. Neurri fiskal eta xenofobo batzuen truke babestu zuten *legistek* Berlusconi, Italiako presidente izendatuz. Federalista eta gerora independentista bezala aldarrikatzen zen mugimendua, nahita edo nahi gabe, herrialde transalpinoak bizi zuen *status quo*-a mantentzeko giltza bihurtu zen, Europako beste zenbait mugimendu subiranisten antzera.

Horrela bilakatu zen Bossi Berlusconiren aliatu. Bere semearen unibertsitateko titulu faltsuen eskandaluak eta alderdiaren legez kanpoko finantzaketaren mamuak bere ibilbidea kolokan jarri zuten arte. 2012. urtean erretiratu zen. Roberto Maroni milandarrak 2013an Lonbardiako hauteskunde presidentzialak prestatzeko alderdiaren gidaritza utzi zuenetik, Italiako Barne ministro izatera iritsi den Matteo Salvini da mugimendu populistaren liderra.

MATTEO SALVINI UMBERTO BOSSIREKIN, IRAGANEKO ARGAZKIAN. SALVINI HORRELAKO KAMISETAK JANTZITA IBILTZEN ZEN. HALA ERE, EZ DU SEKULA EUSKAL HERRIKO ETA KATALUNIAKO INDEPENDENTISMOAREKIN ALIANTZARIK EGITEA LORTU, BERE ALIATU NATURALA ESKUIN MUTURRA IZAKI.

LEGA NORDETIK, SALVINIREN LEGARA

Salviniren etorrerak Lega Norden zenbait oinarri ideologiko kolokan jarri ditu. Hainbeste zigortutako Italia hegoaldera elektoralki zabaltzeko pausoa eman du, diskurtso xenofoboa norabidez aldatuta. Aldaketa horren sinbolo gisa ulertu daiteke mugimenduaren izen berria. Bossiren Lega Nord zena Salviniren Lega bilakatu da.

Alderdiaren europazaletasuna ordezkatu dute Europar Batasunaren aurkako jarrera zuzenagatik. Abenturaren hasieran beren burua ateo gisa aldarrikatzen zutenek, Europa kristauaren eta familia tradizionalaren defendatzaile gisa definitzen dute beren burua egun. Pasa den urteko hauteskundeek Italiako gobernura eraman dute Lega. Bossik amestutakoa lortu du Salvinik, babes taktikoetatik haratago, gobernutik etorkin eta gutxiengoen aurkako neurriak martxan jarri dituzte. Lan horretan berarekin agintean den 5 Izar Mugimendua (M5S) oztopo izan beharrean laguntzaile du. Orain, gauza berbera lortu nahi du Europan eta horretarako bidelagun bila hasi da Salvini.

> ***Bossik inoiz lortu ez zuena lortu du Salvinik: Erromako Gobernutik xenofobia instituzionalizatzea. Gauza berbera lortu nahi du Europan***

Etorkinen aurkako erasoak hirukoiztu egin dira Lega boterera iritsi zenetik, Intolerantzia, Xenofobia eta Arrazismoaren Aurkako Italiako Legebiltzarreko Batzordearen datuen arabera. Buruzagiak aldatu badira ere, xenofobia berdin sustatzen dute. Steve Bannon eta enparauek Salvini aukeratu dute Europar Batasunaren kontrola eskuratzen saiatzeko maiatzeko hauteskundeetan. Azken inkesten arabera *legistak* lehen indarra izan daitezke Italian. Bitartean, Potere al Popolo bezalako esperientzietatik kanpo, desagertzear da kontinente zaharrean historikoki berebiziko pisua izan duen Italiako ezkerra, espazio okupatu eta borroka zehatzetatik at. Faxismoa Bruselarako martxan da eta zenbait herrialdetan ezkerra ez da inondik ageri. Instituzioetan ez egoteak esan nahi duenaren inguruan hausnartu dezatela batzuek, baita gure herrian ere. Ultraeskuinak oso argi baitu hori. ●

Siriako errefuxiatuak Nafarroan

"Han genuen guztia galdu dugu, ez dugu nora itzuli"

Gerra hasi baino lehen, Siriak 20 milioi biztanle zituen. Egun, populazioaren erdia baino gehiago desplazatuak dira, Siriako zonalde batetik bestera edo atzerrira ihesean ateratakoak. Nafarroara iritsitako hiru siriarrekin aritu gara, hemen bizi duten errealitatea ezagutzeko batetik, Sirian gertatzen ari denaz hitz egiteko bestetik.

KOLDO AZKUNE ETXABARRI

Beste sei milioi herrikidek bezala, Abdelkader eta Abdulrazak Idris anaiek Siriako muga gibelean utzi zuten aspaldi. Homs hirian jaio ziren eta badira ia hiru urte Nafarroako Mutiloan bizi direla, gurasoekin eta beste bi anai-arrebarekin batera. Turkiatik zuzenean etorritako errefuxiatuak dira, Udaberri Arabiarraz geroztik hasitako gerraren biktimak.

Nola sentitzen zarete Nafarroan, eta zein albiste ematen dizuete Sirian gelditu diren senideek?

Abdelkader: Hemen oso ongi gaude, oso lasai bizi gara. Jendea pittin bat itxia bada ere, gurekin adeitasunez aritzen dira.

Abdulrazak: Amona eta bi izeba Homsen gelditu dira. Bonbetatik salbu gelditu den auzo bakanetako batean bizi dira. Bashar Al Asaden erruz gure auzokide gehienak maleta hartu eta handik atera dira, eta itzultzeko beldur dira. Erregimenari beldurra diogu eta han genuen guztia galdu dugu, birrinduta gelditu da gure etxea, ez dugu nora itzuli. Homs igaro da Siriako hirugarren hiririk garrantzitsuena izatetik biztanleen bi herenak galtzera, eta bonbek bertako eraikin eta auzoak txiki-txiki eginda utzi dituzte.

> **Siriako presidenteak argudioak eman nahi dizkio nazioarteari, terroristen aurka diharduela esanez. Baina nork sortu ditu talde horiek? Islamaren ikuspegia desitxuratu nahi dute, eta gobernuari iraultza zapaltzeko aitzakiak eman**
>
> Abdelkader Idris

Zergatik tematu dira, besteak beste, Homsekin?

Abdelkader: Al Asaden familiak 40 urte daramatza boterean, eta gurea ez da erresuma bat, errepublika baizik. Homsen aldaketa nahi genuen eta erregimenaren aurkako iraultza hasi zen, gure presidentea tirano bat zelako. Egiptoko Udaberri Arabiarra ere gure herrira iritsi zen, baina presidentearen aliatuek (Errusiak, Txinak eta Iranek batik bat) babes militarra eman zioten. Matxinatu baginen ez zen izan pobreak ginelako edo lanik gabe geundelako, askatasuna eta demokrazia nahi genuelako baizik. Al Asadek protestak ezabatu nahi zituen eta horiek zeuden auzoen aurka oldartu zen, neurririk gabe, mota guztietako armak erabilita eta errugabeak akabatuz. Boterean irauteko herriaren aurka egin du. Bere alde zeuden auzoak dira bonbetatik libratu diren bakarrak. Damaskoko erdialdean, kasu, ez duzu eraitsitako eraikinik aurkituko.

Gure herriak Irak, Palestina eta Libanoko errefuxiatu asko hartzen zituen eta orain gu gara errefuxiatuak. Nik gaztetan banuen Europara etortzeko ideia, baina turismoa egitera, ez etorri garen moduan.

Abdulrazak: Baina guk ez genituen errefuxiatuak eremu itxietan sartzen.

EZKER-ESKUIN, ABDULRAZAK ETA ABDELKADER IDRIS ANAIAK, MUTILOAKO FRONTOIAN.

Gurekin batera bizi ziren, guk bezala lan egiten zuten, gure mahai berean bazkaltzen zuten...

Siriako presidenteak dio terrorismoaren kontra borrokatzen ari dela.

Abdulrazak: Hori ez da egia. Al Asad terrorismoaren sustatzailerik garrantzitsuenetakoa da.

Abdelkader: Presidenteak argudioak eman nahi dizkio nazioarteari, terroristen aurka diharduela esanez. Baina nork sortu ditu talde horiek? Gobernuak berak, Amerikako Estatu Batuek eta Ingalaterrak. Islamaren ikuspegia desitxuratu nahi dute, eta gobernuari iraultza zapaltzeko aitzakiak eman. Ez dugu ahaztu behar Isis taldeak musulmanak hiltzen dituela. Erlijioak esaten duenari baino gehiago, goian dituzten agintariei obeditzen diete.

Abdulrazak: Sirian aniztasun handia dago. Erlijio eta kultura ezberdinak ditugu, herrialde laikoa da. Kristauak, juduak edo kurduak ditugu, eta gerra hasi arte arazorik gabe bizi ginen elkarrekin. Baina munduko herrialde boteretsuek interes franko dute gurean.

Nola kudeatzen dituzue han bizitakoaren oroitzapenak?

Abdelkader: Oso zaila da. Lagunak galdu ditugu, baita senideak ere. Eta ez hori bakarrik, etxea ere galdu dugu, auzoa, kotxea... Dena nola bonbardatzen zuten ikusi dugu, zuzenean.

Abdulrazak: Gure aitak kamioi enpresa bat zeukan beste osaba batzuekin batera. Homseko setioa hasi zelarik, armadak gure kamioi guztiak ebatsi eta hondatu zituen. Deus gabe gelditu gara. Orain aitak 62 urte ditu, kamioiak gidatzea du bizimodu, baina hemen ezin du gidatzeko baimena eskuratu, gaztelania ikasten ari den batentzat azterketa teorikoa gainditzea oso zaila baita. Frantzian baimena homologatuta dago, eta Alemanian arabieraz egiteko aukera badago. Guk ez dugu diru-laguntzen menpe bizi nahi, lan egin nahi dugu.

Han gelditzea erabaki izan bazenute, egun zein egoeratan egonen zinatekete?

Abdelkader: Gure auzoan gelditu izan bagina, hilik egonen ginateke. Al Asadek ia herrialde osoa kontrolpean du, baina bonbardaketek jarraitzen dute, Idlib edo Alepon kasu. Dinamita upelak prestatu eta helikopteroetatik edo hegazkinetatik jaurtitzen segitzen dute, errugabeak akabatuko dituztela jakinda.

"ERREFUXIATUOK PROBLEMA UGARI DITUGU ETXEA EDO LANA AURKITZEKO"

Abdul Razak Alyusuf-ek Turkiatik Greziara doan itsaso zatia plastikozko txalupa baten barruan egin zuen. Itsasoan zeuden bitartean txalupa hondoratuko balitzaie zein haurri lagunduko ote zion pentsatzen eman zuen bidaia, eta tentsio hori ezin izan du burutik kendu: "Oraindik, Villavesan noala [autobusean], zein haur erreskatatuko ote dudan aukeratzen ibiltzen naiz. Ezin dut pentsamendu hori burutik kendu".

Errefuxiatuak Martxan taldeko partaidea da. Alepon jaio zen eta Iruñean gelditzeko hautua egin du. Gaztelania ederki menperatzen du eta euskarazko hitz solteak dakizki. Berriki seme baten aita izan da, eta inguruetan dauden errefuxiatuen egoera zuzenean ezagutzen du.

"HEDABIDEETAN ERAKUNDE BATEK EDO BESTEAK ERREFUXIATUEI LAGUNTZEN DIELA ENTZUTEN DUGU, BAINA ERREALITATEAN EZ DA HORRELA", KEXU DA ABDUL RAZAK ALYUSUF.

Nafarroan Siriatik etorritako 30-40 errefuxiatu inguru bizi direla kontatu digu. Kopurua ez da zehatza, askok alde egiten baitute familia sareak dituzten beste herrialdeetara, Alemaniara edo ipar Europako herrialdeetara: "Iruñean errefuxiatuok nahiko ongi bizi gara, baina batzuk kanpora doaz problema ugari ditugulako etxea edo lana aurkitzeko orduan. Bizimodu arrunta eraman ahal izateko joaten gara Europako beste herrialdeetara. Ez gara alferrak, lan egin nahi dugu".

Errefuxiatuak hartzeko programa Gurutze Gorriak eta Errefuxiatuei Laguntzeko CEAR Espainiako Batzordeak kudeatzen dute, eta osotara urte eta erdiko iraupena duten hiru fase dauzka. Lehenengo seihilekoan aipatu erakundeen etxeetan bizi dira, familia multzotan edo beste jatorriko errefuxiatuekin, eta dirulaguntza txiki bat jasotzen dute. Nahiko laguntza eskasa dela dio: "Lau pertsonendako 290 euro ematen dizkigute. Honekin hilabete erdiko gastuak ordaindu ditzakegu bakarrik. Eta zer egiten dugu beste hamabost egunetan?".

Programaren hurrengo bi faseetan errefuxiatuek etxea aurkitu behar dute beren kasa bizi ahal izateko. Halere, bidean oztopo ugari aurkitzen dituzte: "Bi erakunde hauetako langileek laguntza handia ematen diguten arren, gerraren zama dugu gure bizkarrean, sei hilabetetan ez dugu artean hizkuntza aski ongi menperatzen, ez dugu lan kontraturik inon erakusteko, hitz egiterakoan doinu arabiarra nabari zaigu eta pisuetako ugazabei ez zaie gustatzen... Zinez zaila da egonkortasuna aurkitzea. Pisu bila nenbilelarik, telefonoz deitu eta dudan hizkera entzuterakoan zuzenean moztu egin izan didate".

Oraindik, Villavesan noala, zein haur erreskatatuko ote dudan aukeratzen ibiltzen naiz. Ezin dut pentsamendu hori burutik kendu

Abdul Razak

Abdul Razakek argi dauka errefuxiatuena modako kontua izan dela: "Errefuxiatu batekin selfie bat ateratzea edo errefuxiatu eremu batera joatea moda bat izan da. Nire kasuan, hona iritsi nintzelarik lagunak nonahi atera zitzaizkidan, baina egun non sartu dira lagun gehienak? Desagertu egin dira. Hitzaldi bat eman behar denean deitzen didate, baina kito. Hedabideetan erakunde batek edo besteak errefuxiatuei laguntzen diela entzuten dugu, baina errealitatean ez da horrela. Nafarroan, adibidez, suhiltzaileek bultzatutako Help-Na taldea da laguntzen gaituen talde bakarrenetarikoa".

Etxea aurkitzea lan nekeza da, eta Razakek dei egiten die etxea hutsik duten nafarrei, errefuxiatuei alokatu diezaieten. Lana lortu ahal izateko, berriz, gobernuak tituluen homologazioa erraztu beharko lukeela deritzo: "Hona etortzen diren errefuxiatu askok lanbidea izan badute, baina bertakoentzat zaila bada lana lortzea, irudikatu hizkuntza ongi menperatu ez eta titulu homologaturik gabeko errefuxiatu batendako. Europako beste herrialdeetan ez bezala, gidatzeko baimenarekin ere berdin gertatzen da, gure gidabaimenak ez du baliorik hemen". ●

Futbolina, poesia eta anarkismoa

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Finisterre, Galizia, 1919ko maiatzaren 6a. Alexandre Campos Ramirez poeta, asmatzaile eta editore anarkista jaio zen; jaioterria zela-eta Alejandro Finisterre (galegoz, Alexandre Fisterra) esango zioten. 15 urte zituela joan zen Madrilera ikastera. Hantxe ezagutu zuen León Felipe (1884-1968) poeta eta harekin batera *Paso a la juventud* aldizkaria sortu zuen. Eta hantxe harrapatu zuen Espainiako Gerra Zibilak. 1936ko azaroko bonbardaketetan hondakinen artean harrapatuta geratu zen eta Montserrateko ospitaleraino eraman zuten larriki zauritua. Han, osatu bitartean, futbolean aritu ezin zuten haur zaurituak ikusita eta mahai-tenisa inspirazio iturri hartuta, mahai-futbola asmatzea bururatu zitzaion. Francisco Javier Altuna euskal arotzak gauzatu zuen ideia pinu egurra eta altzairuzko barrak erabiliz, eta, hala, lehen futbolina sortu zuten.

Beste ekintzaile anarkista baten aholkuz, diseinu hura patentatu zuen Finisterrek Bartzelonan, 1937ko urtarrilean. Horrekin batera beste asmakizun bat ere patentatu zuen: pianojole batekin maiteminduta zegoen eta harentzat oinekin partituren orriak pasatzeko gailua egin zuen.

Frankistek gerra irabazi zutenean, Pirinioak oinez zeharkatu eta Frantziara joan zen ihesi. Bidean futbolinaren patentea galdu omen zuen. Baina partitura-orriak pasatzeko gailuarekin diru pixka bat biltzea lortu zuen Parisen eta, hala, 1948an Ekuadorrera joateko aukera izan zuen. Lau urtez bizi izan zen Quiton eta, besteak beste, *Ecuador 0º, 0', 0''* poesia aldizkaria sortu zuen. 1952an Guatemalara joan zen, artean Espainiako Errepublikaren gobernua zilegitzat zuen herrialde bakanetakoa. Espainiako enbaxada errepublikarretik Mexikora isilpeko dokumentuak eramaten aritu zen. Eta futbolinak fabrikatzen eta saltzen ere arrakasta lortu zuen.

Baina 1954an, AEBek babestuta, estatu kolpea jo zuen Carlos Castillo Armas koronelak Guatemalan. Finisterre atxilotu eta agente frankistek hegazkin batean sartu zuten Espainiara bidean. Hegazkineko komunean lehergailu bat "asmatu" zuen xaboi-pastilla bat aluminiozko paperetan bilduta. Lehergailu faltsu harekin mehatxatu arren, hitzez konbentzitu omen zituen tripulazioa eta bidaiariak. Hegazkina Panamara desbideratu eta hantxe lurreratu zen galiziarra. Futbolinean ez ezik hegazkinen bahiketan ere aitzindari izan zen.

Hurrengo urteak Mexikon eman zituen. Besteak beste, Editorial Finisterre Impresora sortu zuen eta *Galeusca* aldizkariaren faksimile bat ere argitaratu zuen.

Franco hil ondoren itzuli zen Espainiara eta harrituta ikusi zuen futbolina oso zabaldua zegoela; baina aitortzarik eta sosik ez zuen ikusi orduan. Aitortza geroago iritsiko zitzaion. 2007ko otsailaren 9aren biharamunean egunkariek "futbolinaren asmatzailea" hil zela jakinarazi zuten. ●

PAUL CARR

Autoak mutilentzako jostailuak omen

1952an Ann Odell neskato ingelesaren eskolan jostailu handiak eramatea debekatu zuten, soilik eskuan sartzen zitzaizkien jostailuak eramateko baimena zuten haurrek. Annen aita, Jack Odell ingeniaria zen (argazkian) eta metalezko kotxe txiki bat egin zion alabari.

Annek gustura hartu zuen aitaren oparia eta eskolan sekulako arrakasta izan zuen jostailu berriak. Hala, eskaera zegoela ikusirik, Jack Odell kotxetxoak ekoizten hasi zen, Matchbox (pospolo-kaxa) izenez. 60ko hamarkada erdialderako, urteko 100 milioi Matchbox auto saltzen ziren. Mutilentzako jostailu nagusietakoak bihurtu ziren, berez neska batentzat sortuak izan arren. ●

ZALDALEAK IRABAZTEN

Zaldalea aziendari ematen zaion pentsua da, baldin eta aleez osatua badago. Izan daiteke oloa (*Avena sativa*), garagarra (*Hordeun vulgare*), zekalea (*Secale cereale*) edo garia (*Triticum aestivum*).

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Egunak gauari gaina hartzen dio udaberriko ekinozioarekin. Aurten martxoaren 20an gertatu da, 22:59an, udaberriaren atea irekiz. Eki aurrizkiak gauza bera esan nahi du. Ordura arte gaua luzeagoa zen. Egun hartan egunak eta gauak hamabina ordu izan zituzten. Ordutik eguna luzatzen ari da eta gaua laburtzen. Naturak ederki nabarmentzen du koska hori. Egunaren luzaroak bi gauza indartzen ditu, batez ere, argitasuna eta tenperatura. Garai beroenak badatoz... Beroa ikusi ere egin ezin dutenak, zapuzten, lorea, fruitua eta hazia ematera jarriko dira eta berozaleak orain, denak emanda, hazi eta hazi, puzten, uda-udazkenean fruitu eta hazi izateko. Biak buru -belarri, buru-hosto.

Burutu eta haziak emateko garatzen ari dira, dagoeneko laboreak. Azaroan edo neguaren hasieran erein zituzten. Eguna mozten hasiko denean haziak heldu eta landarea zimelduko da. Uztaren uztailean. Urte osoa aseko duten aleak orduan bilduko dira. Ogia egingo da alearekin. Janaria, alegia.

Guretzako janaria izango dena, aziendarentzako zaldalea izango da. Zaldalea aziendari ematen zaion pentsua da, baldin eta aleez osatua badago. Izan daiteke oloa (*Avena sativa*), garagarra (*Hordeun vulgare*), zekalea (*Secale cereale*) edo garia (*Triticum aestivum*). Aziendari ukuiluan bi eratako jatena ematen zaio: alearekin egindako zaldalea edo pentsua, eta saralea edo bazka.

Zaldalea ale osoz ala txikituz osa daiteke. Txikitutakoa ehoa bada, hiru eratako jatenak izan daitezke. Baga, azala edo zahia izango da. Biga, errexiloia, azal hondarrez, barruko azalez eta irin arrastoz osatua. Higa, irin hutsa. Bestelakorik ere bada, noski, hiru horiek nahi bezala nahasita. Ez dut gogoan nori, baina bateren bati zaldale hitzak "zahi eta ale" esan nahi duela entzun diot.

Alea ez den guztia bazka da. Arbia (*Brassica napus*), erremolatxa (*Beta vulgaris var. rapacea*), kuia (*Cucurbita pepo*), laboreen lastoak, belar ondua, arto-orria (*Zea mays*), arto-lorea, belardiko bazka segatu berria, alpapa edo luzerna (*Medicago sativa*), ailorbea (*Trigonella foenum-graecum*), pagotxa (*Trifolium incarnatum*), txirta edo zalkea (*Vicia sativa*) eta abar. Saralea, zenbait tokitan artaburuak aldamenean duen orriari esaten zaio.

Udaberriarekin ukuilutik aterako da larrera azienda. Saltoka eta zirimolaka atera ere. Barruan zaldale eta sarale, gozo zegoen, baina kanpoak, berotzen ari den lurrak, hazten ari den belarrak eta giro eguzkitsuak beste zain bat eransten dio. Eta gozamenez, zilipurdika hasten da. Gure etxean Bertol astoa halaxe ibili da apirilean ia egunero, hankaz gora jarri eta bizkarra lurrean igurzten, aztarrika. Zaldaleak irabazten ari dela esaten dugu. ●

BASERRIAK ENERGIA AUTONOMIARAKO BIDE BERRIEN BILA

GARAZI ZABALETA

Ekoizpen ekologikoan zihardu-ten zenbait abeltzainek egin zuten lehen proposamena: zer egin ze-zaketen baserritarrek beren autonomia energetikoan sakontzeko?". Mirene Be-giristain EHUko ikerlariaren hitzak dira. Baserritarren proposamena hartu eta Energia Sortzen proiektuan lanean aritu da Biolur, Lurgintza eta Goiener elkarte-ekin batera. Lehen helburua? Gipuzkoako bost baserriren jarduna oinarri hartuta diagnostikoa osatzea: energia kontsu-moa murrizteko eta baliabide propioekin energia sortzeko eman daitezkeen pau-soak aztertu dituzte.

IKUSPEGI EKONOMIKOTIK HARAGO

Baserritarrekin euren energia kontsu-moa nola hobetu ikusteaz gain, energia iturri berriztagarri propioak martxan jarriz –eguzki plaken aukera jaso dute bereziki– aurreztuko luketena ere azter-tu dute diagnostikoan. Ikuspegi ekono-mikotik egin dute lanketa, baina ez dira horretara soilik mugatu: proiektuaren bultzatzaileek argi dute baserrietan ener-gia burujabetzaren aldeko apustuak di-mentsio ekologiko, sozial eta politikoa ere badituela.

Ikuspegi ekonomikoari dagokionez, ur-tean 10.000 kWh kontsumitzen dituen baserri "eredu" baten azterketa egin dute diagnostikoan: 4kWp-ko eguzki plakak jarriz gero, energia kontsumoaren %33 autohornikuntza bidez jasoko luke base-rriak. Plaken instalakuntzak 15.100 eta 6.000 euro arteko inbertsioa ekarriko luke, baserritarrek hamasei eta hama-zazpi urteren bitartean amortizatuko lu-ketena. Eta zer gertatzen da, esaterako, ikuspegi ekologikotik? Bada, ereduko ba-serri berak urtean 2,2 tona CO_2 gutxiago isuriko lituzkeela, 242 zuhaitz landatzea-ren pareko litzatekeena.

ALIANTZA BERRIAK SORTZEN

Garrantzitsua izan da Begiristainen us-tez proiektuan elkarte ezberdinen artean aliantza eta sinergiak sortu izana: "Eragi-le batzuen artean bazegoen lotura, baina Goienerrekin, esaterako, proiektu honen bidez harremana eraikitzen joan gara, eta Energiaren Euskal Erakundearekin ere lehen hurbiltzea egin dugu diagnostikoa osatzean".

Orain baserritarrekin hainbat diru la-guntza aztertzen ari dira diagnostikoan landutako proiektuok errealitatera era-man ahal izateko. Lehen sektoreari zu-zendutako diru laguntza lerro berriak egon daitezkeela ere aurreikusten dute. "Inbertsio hauek beraien ekoizpenean eta prezioetan eragin positiboa izan de-zaketela baloratu dute baserritarrek, eta honekin aurrera jarraitzeko interesa era-kutsi dute". Paperekoa praktikan jartzeko bideak arakatzen ari dira. ●

Basherri sarea
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK
info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus
HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1970eko maiatzaren 24a

Zeruko ARGIA

EUSKALERRIAN, EUSKERA DEBEKATUAK ESANAK EDERRAK ETA EGIÑAK POBREAK

HON ZER

Arrantzaleak, asarre bizian

KOLDO IZAGIRRE

Ugariak eta aspaldidanikoak ditugu guraso euskaldunek sinaturiko eskabideak, seme-alabei ez uzteko inondik inora euskaraz egiten eskolan. Gorabidea gaztelania zen, euskarak baserrirako besterik balio ez, edo arrantzarako, edo…

Ez dozu abade gura, semetxo? Eta fraide?

Ez dozu moja gura, alabatxo?

Atzera samar geratutako maisua ekarri zioten Amorotoko herriari, pedagogia berriko ikastaroetan egon gabea noski, gizajo samarra ere bai halako arloteen artera onartzeko. Usnatzen zen garai berriari egokitu nahi ezeko frankista zintzoa zatekeen, noski, denok ez dugunez balio gure balioak abandonatzeko.

Eskandalua Amoroton?

Gernikan, Getxon, Bilbon, zeinen berba ikusgarriak hodei zuri eta grisetan, zelako berba garratzak ibaiko ur uherretan eta leihoetako beira garbietan, *No se habla en vasco* bulegoan, lantegian, tabernan, medikuarenean, *No se habla en vasco* okindegian, futbolean, soziedadean, *No se habla en vasco* larrean, bankuan, hondartzan, *No se habla en vasco* gure artean.

Amoroton, erdalduna maisua eta Zamorakoa izatea. ●

ARGIAK 100 URTE

"Zeresana eman zuen erredakzioan hiru emakume egoteak"

ELIXABETE GARMENDIA

MIREN OSA GALDONA

Maiatzaren 28an emango du hitzaldia Elixabete Garmendiak *ARGIAk 100 urte: Zerukotik lurrekora* zikloaren baitan (ondoko orrian egitaraua). Aukera baliatu dugu elkarrizketatzeko. Hau zizka-mizka baino ez da, *ARGIAren barrenak* blogean dago elkarrizketa osorik.

Zer dela-eta, eta noiz sartu zinen ARGIAn?

1976ko uztailean sartu nintzen erredakzioan, unibertsitate ikasketak amaitu eta berehala. Kazetaritza amaitu aurreko ikasturte guztia *Zeruko Argia* inprimatzen zen inprentara joan-etorrian pasa nuen, Iruñean, probak zuzentzera joaten bainintzen. Ordurako pare bat lan ere argitaratuak nituen. Kurtso oso bat aldizkaria irakurtzen pasa ostean, uste dut prest nengoela erredakzioan sartzeko.

Niri *Anaitasuna* gustatzen zitzaidan ordurako euskara batua ezarria zuelako idazkeran, besteak beste. *Zeruko Argia*n ez zen horrela: kolaboratzaileen esku uzten zuten euskara batuan edo euskalkian idaztea. Hala ere, 1976ko udarako jada erredakzio barruan erabaki zuten hizkuntza moldea euskara batua izan behar zela. *Anaitasuna* gainera homogeneoagoa eta nabarmen ezkerrekoagoa zen, eta niri hura gustatzen zitzaidan irakurtzeko. Parean, baina, *Zeruko Argia* tokatu zitzaidan.

Aipatu izan duzu zure *Zeruko Argia*n euskara batua ezartzea eta kazetaritza estiloa sartzea izan zirela zure hasierako bi helburuak.

Kazetaritza estiloari dagokionez, nik dakidala euskaraz idazten zuten kazetarien artean momentu hartan kazetaritzako ikasketak eginak zituen bakarra Miren Jone Azurza zen. Pilar Iparragirre eta biok bigarren olatukoak ginen. Une hartan iritzi artikuluz osatzen zen *Zeruko Argia*, nahiz eta tarteka beste genero batzuk ere lantzen ziren. Luis Alberto Aranbarri "Amatiño" aitzindari izan zen horretan: elkarrizketak, erreportajeak eta denetik egiten zituen salbuespena zen. Euskarazko kazetaritzan kazetaritza generoak behar zirela ikusten genuen, ez besterik.

Emakumea, kazetaria eta euskalduna. Zein erresistentzia bizi behar izan dituzu? Gainera zuzendari izan zinen.

Zuzendari izatearena anekdota hutsa da: informazio orokorreko aldizkari bat kaleratzeko unibertsitateko tituludun norbaitek izan behar zuen zuzendari. Lehenago beste askok eman zuten euren izena, eta orduan ni neu erredakzioan lanean nengoenez, nire izena eman nuen. Ez du beste misteriorik. Funtzionamendua, gainera, nahiko asanblearioa zen, taldean hartzen ziren erabakiak, orduan nire rolak ez zuen eragin berezirik eguneroko jardunean. Gainera, hiru emakumek toki berean egin genuen topo. Sarrionandiak "hiru emakume argiak" gisa definitu gintuen *Akordatzen* liburuan. Hala ere, esango nuke orduko hartan zeresana bai eman zuela erredakzio berean hiru emakume egoteak. ●

ARGIA JENDEA

Zerukotik lurrekora

Nahasmenik ez egoteko edo zita errazago oroitzeko, emanaldi guztiak 19:00etan izango dira, Donostiako San Telmo Museoan.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Artikuluarentzat izenbururik egokiena hitzaldi zikloaren titulua bera iruditu zait. Sarri asmatuta egoten dira beharrezkoak ditugunak. Zergatik ez berrerabili? Izenburu horrek biltzen ditu mendeurrenaren ospakizunerako edukiz kargatuen dauden ekitaldiak. Emanaldi ziklo bat da, Donostian egingo dena astebetez. San Telmo Museoa izanik laguntzaile, bertan egingo dira hitzaldi eta errezitaldiak.

Mendearen umeek munduari desafio hitzaldia eskainiko du Koldo Izagirrek maiatzaren 21ean, asteartea, eta honek irekiko du zikloa. Hitzaldiaren titulua eta esatekoen ikuspuntua, Gabriel Arestik duela mende erdi eta gehiago argitaratutako artikulu batetik datoz. Lantuaren eta epelkeriaren aurkako aldarri honek garrantzi berezia izan zuen kultur dinamika bat abiatzeko, etorkizuna hartzen zuenez helburu. *Zeruko Argia* agertoki zutela zaharkituaren eta berritasunaren artean sortu ziren hainbat eztabaida komentatzea izanen da Koldo Izagirreren hitzaldia.

100 urte, ehunka irudi hitzaldi ilustratua dago antolatuta maiatzaren 22rako, asteazkena, eta honen gidari izango dira Antton Olariaga eta Joseba Larratxe marrazkilariak. Olariagak lau hamarkadatan zehar ARGIArentzako egindako marrazki garrantzitsuenen errepasoa egingo digu. Testua eta irudiaren arteko harremanak, umorea, euskara bera komunikazio tresna, postergintza, komiki-lanak, diseinua... Joseviskyk azken urteetako tendentzia berriak erakutsiko dizkigu.

Enpeinatzea ez bada libre errezitaldiak beteko du museoa maiatzaren 24an, ostiralez, Joxe Mari Ostolaza "Xalbardin"en, Malores Etxeberriaren eta Josu Landaren ahotsekin. Hirukote honen hitzetan, "ehun urte asko ote diren ez dago oso garbi, batez ere poesia maite eta bizi baduzu. Utopia iparrorratz, enpeinatu beharra da motorretako bat. Horra aldarria, poesia eta kantua bitarteko".

Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat, Elixabete Garmendiaren hitzaldiak emango dio itxiera zikloari maiatzaren 28an, asteartea. Euskarazko kazetagintzaren "nahi eta ezina" errepasatuko du, lapitz gorriarekin azpimarratuz kinka horretan egoteak ezarri dizkion ezaugarriak: normaltasun eza, militantzia, jazarpena 1936ko gerratik hasita... "heroismora kondenatua" ote euskarazko kazetaritza? ●

ARGIA
1919 · 2019

AGENDA

ARGIAK 100 URTE: ZERUKOTIK LURREKORA

Donostia San Telmo Museoa
19:00

Maiatzak **21** asteartea
Koldo Izagirre
Mendearen umeek munduari desafio hitzaldia.

Maiatzak **22** asteazkena
Antton Olariaga eta Joseba Larratxe
100 urte, ehunka irudi hitzaldi ilustratua.

Maiatzak **24** ostirala
Joxemari Ostolaza "Xalbardin", Malores Etxeberria eta Josu Landa
Enpeinatzea ez bada libre errezitala.

Maiatzak **28** asteartea
Elixabete Garmendia
Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat hitzaldia.

ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Ekainaren **1**ean
Ziburuko herriko plazan
11:00 - 20:00

Baltsan Elkarteak eta ARGIAk elkarlanean antolatuta.

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *Argia Jendea*-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

HAUR PARKEA
MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Maiatzak 23, osteguna, 10:00etan

“Bizitza eta musika batera doaz”

AIDA TORRES, MUSIKARIA

Musika du arnas. Bateria jotzeak eta kantatzeak ematen diote hatsa. Hor kokatzen du erronka: aldi berean bateria jo eta kantatzeko arnasa nola neurtu, hatsa nola bideratu. Jupiter Jon-en bere ahots eta arnas propioak landu ditu azken urteetan. Duela hogei urtetik gora eman zituen lehen makilakadak Lisabörekin. Haien azken diskoan parte hartu du, taldea utzi zuenetik hamarkada igaro denean.

GORKA EROSTARBE LEUNDA
DANI BLANCO

Beste mila saltsatan ere ari da azken urtebete pasatxoan Aida Torres (Avilés, Espainia, 1979). Handik eta hemendik deitu izan diote kolaboratzeko, besteen proiektuetan parte hartzeko, eta ez soilik bateria-jotzaile modura, baita ahotsekin laguntzeko ere: Javi P3Z-ek, Mursegok, Joseba Irazokik, Maite Larburuk... Baina, akaso, Lisabören *Eta edertasunaren lorratzetan biluztu ginen* azken diskoan berriro ere bateria jotzea izan du azken boladako lankidetza bereziena, hunkigarriena.

Kolaborazio horiek balio izan dizute Aida berri batzuk deskubritzeko?
Bai, hala da. Oso jende desberdinarekin lan egiteko aukera izan dut azkenaldian, nahiz eta horietako zenbait zirkulu berean mugitzen garen. Bakoitzak musika ulertzeko eta sentitzeko bere modua dauka; ekarpen horiek jasotzea ederra da, oso interesgarria. Maite Larburu, esaterako, musika klasikotik dator. Nik ez dut musika-lengoaia hori ezagutzen, eta nabaritzen duzu asko ikasten duzula eta beste musika parametro batzuetara irekitzen zarela. Zure erregistro eta mugak irekitzen dituzu halabeharrez; kontrastea ere erakargarria da, gure perkusioak nahiko basatiak dira, Einstürzende Neubauten-en eran ia-ia [barrez], eta bere kantek pop delikatutik dute, biolinarekin eta...

Gaur egungo eszenan, musikariak asko nahasten zarete, batzuk besteekin aritzen zarete. Garaiotako ezaugarria da hori?
Nik uste dut betidanik egon dela nahasteko joera, eta gainera oso aberasgarria izaten dela. Egia esan ez dut pentsatu orain gehiago ote den ala ez, baina akaso izan liteke. Adibidez, Jupiter Jonen ere kolaborazio berezi bat prestatzen ari baikara, Amaren Alabak taldearekin. Eta hori ere bada oso desberdinak diren bi unibertso musikal batzea... Agian arrazoi izango duzu!

Zer konta liteke proiektu horretaz, kolaborazio horretaz?
Mirailak diskoan ere Bidehutseko taldeok elkarren bertsioak egin genituen, batetik; eta bestetik, Bidehutsen bertan badago sail bat *Coupages* izenekoa, eta horretan musikari edo talde desberdinen arteko lankidetzak bultzatzen dira. Orain arte bi baino ez dira argitaratu. Ideia horri helduta, beste lan bat plazaratu nahi genuen. Asko estimatzen dugu Iparraldean duten abesteko manera, *a capella* eta abar, eta Amaren Alabak-en kasuan emakumezkoen ahotsez osatua gainera. Eurekin harremanetan jarri eta animatu egin ziren. Single moduko bat aterako dugu, bi edo hiru kantaz osatua. Asmoa urte bukaeran argitaratzea da. Orain lanketa prozesuan ari gara.

Joseba Irazokiren *Zu al zara?* diskoan hiru kantatan sartu duzu ahotsa. Zure ahots propioaren bilaketan beste urrats bat?
Josebak oso argi zituen gauzak; pasatu zidan kantetako batean ez nintzen oso ondo iristen ahotsarekin, eta berak proposatu zidan *falsetto*a erabiltzeko, opera kutsu gehiagoko zerbait; eta egia zen: egin nuen eta funtzionatu zuen. Kantatzeko modu berrietara zabaltzen zaituzte halako ariketek, akaso neronek bakarrik sekula deskubrituko ez nituzkeenak. Egun dagoen musikari ipurterreenetakoa da Joseba, eta besteok ere elikatzen gaitu, eragiten digu.

Hala ere, azken hilabeteetako parte hartze bereziena, segur aski, izan da Lisabören disko berrian bateria jotzea. Etxera itzultzea bezala izan da?
Bai, niretzako oso ederra izan da. Oso lagun gertukoak gara Lisabön, urte luzetako adiskidetasuna dugu. Nire bizitzako parte oso garrantzitsu bat haiekin pasatu nuen, gero gure bideak banatu egin ziren arren. Disko berri bat grabatzeko asmoa zutela aipatu eta bertan parte hartzeko aukera luzatu zidatenean, bateria-jotzaile baten beharrean baitziren, pentsatu nuen baietz, oso polita izango zela berriro beraiekin grabatzea, eta beraiekin berriro egotea. Oso berezia izan zen.

Zure lehen eskola izan zen Lisabö?
Bai, dudarik gabe. Eta ez soilik musikaren ikuspegitik. Talde batekin musika egiteak dakarren guztiari dagokionez ere bai: elkarbizitza, zuzenean jotzea, bidaian joatea, babestea. Lisabö musika taldea eta kolektiboa da; hau da, bizitza konplikatzen doa pixkanaka eta zaila da gutxieneko exijentzia batekin denboran irautea, baina Lisabök lagun musikarien bidez egiten du aurrera, bat ez bada bestea sartuz. Lisabök erakusten du, zailtasunak zailtasun, egin daitekeela.

Musikalki zer nabarmenduko zenuke Lisabötik, eta zuri zer eman dizu?
Ez da soilik musika, baizik eta Lisabö osatzen duten kideak. Asko maite ditut, eta nire bizitzari egin dioten ekarpena funtsezkoa da. Ez dut tremendista jarri nahi, baina beraiek gabe ez nintzateke orain naizena.

Nola egin zenuten diskoaren iragarpena hain ezkutuan mantentzeko? Kaleratu arte ia inork ez zekien.
Hasieratik esan zidaten horrela mantendu nahi zutela, eta bai, sekretuan mantendu zen, beraiek askatasun gehiagorekin lan egin ahal izateko. Data batzuk ematen badituzu, presioa izan dezakezu bukatzeko, eta gisa honetara berriz, erabateko askatasuna daukazu.

Denbora behar izan duzu berriro Lisabören unibertso horretan sartzeko. Aldendu egin behar izan zenuen Lisabötik orain berriro hurbiltzeko?
Urte asko egin nituen Lisabön. 1998-1999tik Mikel Laboaren azken diskoan –*Xoriek 17*– kolaboratu genuen arte, 2007an-edo. Baina gero, nire gorputzak beste musika mota bat egitea eskatzen zidan. Zerbait fisikoa zen. Mota guztietako musika entzuten hasia nintzen. Baxi Ubeda ezagutu nuen, Jupiter Jonen ideia gauzatzen joan zen, eta beste bide batetik egin genuen. Baina Lisabök planteatu zidanean berriro grabatzea, banekien proiektu zehatz baterako zela, ez zen berriro taldeko kidea izatea, disko bat grabatzea baizik; lagunen bilkura moduko baten gisan hartu nuen. Baina ez nuen konpromisoa hartu beharrik ondoren diskoa aurkezteko, kontzertuetarako eta abar...

> ***"Garrantzia ematen diot musikan gauzak egiteko moduari, erlazionatzeko moduari: hori da musika tresna politiko modura ulertzea"***

Erabat baztertua duzu zuzenekoren batean aritzea Lisabörekin?
Erabat ezin duzu baztertu inoiz, baina orain ez dut ikusten neure burua zuzeneko batean. Lisabörekin bateria jotzea oso lan gogorra da fisikoki, eta une honetan erosoago nago nire taldearekin, Jupiterrekin jotzen. Musikalki Lisabö oso indartsua da, oso bizia. Une bat iritsi zitzaidan zeinetan bizitzeko beste erritmo eta soinu batzuk behar nituen. Lisabörena asko hunkitzen duen musika da, adibidez. Baina beti egin ezin dudan bidaia da. Bere unea izan behar du.

Zer aldatu da zure musika ingurunean eta musika ulertzeko duzun moduan, Lisabö utzi zenuenetik gaur egunera?
Bada, hamarkada bat igaro da, eta gauza asko aldatu dira. Diskurtsoak asko alda-

tu dira. Niri asko kostatzen zait musika eta gainerako guztia banatuta ikustea. Niretzat bizitza eta musika batera doaz. Hamar urte hauetan gauza asko pasatu dira eta ni ez naiz pertsona bera, nahiz eta esentzian berdina izan. Aldatzen goaz etengabe, beharrak ere aldatzen dira, eta musika ere bat doa horrekin. Bateria-jotzaile bezala nire bidea bilatu dut, nire bide pertsonala. Nire muga guztiekin, baina ni naiz.

Zein ezaugarri ditu bateria jotzeko eta ulertzeko zure moduak?
Ez dut umiltasun faltsutik jardun nahi, baina uste dut muga handiak ditudala, ez bainaiz bateria jotzaile tekniko bat, are gutxiago birtuosoa. Jendeak esaten dit jotzeko oso modu bitxia dudala, eta bai, izan liteke, baina ni hala nago eroso.

Musika eta bizitza batera doazela aipatu duzu. Lisabön ari zinela gaixotasun larri batek jo zintuen. Musikak ze paper jokatu zuen gaitzarekin bizi izan zinenean? Musika sendagaia dela esatea topikoa da?
Egia esan, urte horietan musika alde batera utzi nuen eta esango nuke isiltasuna izan zela nabarmen. Orduan ondoen egiten zidana autoan bidaiatzea zen. Leihatilatik begiratzea eta mugimenduan egotea, horrek erlaxatzen ninduen gehien, eta horregatik hainbat bidaia egin nituen familiarekin. Nire gurasoek garai horretan Bebo Valdes eta El Cigalaren diskoak zituzten, eta Buena Vista Social Club-en soinu banda; garai horretan modurik argitsuenean entzun nituen diskoak izan ziren. Orain entzuten ditudanean goxotasunez oroitzen ditut. Baina gauzarik presenteena isiltasuna izan zen.

Lisaböra nola iritsi zinen?
Gaztetxotan oso hardcore zaleak ginen, esan bezala. Talde bat osatu genuen hiru lagunek, eta lokal bila genbiltzan. Jabi Manterola Lisaböko kidea ezagutu genuen Hondarribiko festetan. Beraiek ere lokala partekatu nahi zuten eta horrela hasi ginen elkarrekin erlazionatzen.

Lokal berean entseatzen hasi eta... bigarren bateria bat behar zuten?
Lisabök kontzertua eman zuen Bergarako Jam aretoan, Fugazirekin batera. Hor ikusi zuten Fugazik bi bateriarekin jotzen zuela, eta ideia interesgarria iruditu zitzaien. Artean bateria-jotzaile bakarra zuen Lisabök. Orduan planteatu zidaten niri taldean bateria jotzea.

Zure bizitzan noiz sartu zen musika?
Nire gurasoek taberna bat zuten Elgoibarren, bodega moduko bat: La Pecera. Txikia nintzela Eibarren bizi izan nintzen, eta nire familia Eibar eta Elgoibar tartean bizi zen. Taberna horretan beti zeuden binilozko diskoak, eta hor ditut lehen oroitzapen musikalak. Musika kuxkuxeatzen nerabe garaian hasi nintzen, ordea.

Hasieratik bateria jo nahi zenuen?
Ez, hori kasualitatea izan zen. Osatu genuen taldean nire ahizpak argi zuen gitarra jo nahi zuela. Beste batek baxua jo nahi zuen, eta inork ez zuen nahi abestu. Orduan erabaki genuen bateria-jotzailea eta kantaria txandaka aritzea.

> ***"Lisabörena asko hunkitzen duen musika da, adibidez. Baina beti egin ezin dudan bidaia da. Bere unea izan behar du"***

Azkenaldian asko aritu zara kantatzen, Jupiter Jonen eta gainerako kolaborazioetan.
Bai, batez ere Jupiter Jonen hasi nintzen abesten, eta kasualitatez orduan ere. Hasieran kantari bat genuen. Gure kantari fetitxea zen, eta nahi genuen gure Nick Cave izan zedin, baina gero utzi egin zuen, eta geratu ginen zer egin ez genekiela. Orduan Baxik eta biok erabaki genuen bion artean egitea. Kantatzea benetan esperientzia zoragarria da, zure moldean eroso baldin bazaude. Eta asko betetzen du. Gustatu egin zait, asko disfrutatu dut, eta kolaborazioak ere etorri dira.

Zure aldetik ikertu duzu ahotsarekin, edo formazioa hartu duzu?
Urtebetez hartu nituen kanturako klaseak. Baina gero nire kabuz joan naiz ikasten, jolasten. Oraindik lan handia dut egiteko ahotsarekin. Batez ere aldi berean bateria jo eta kantatzeari begira. Bateria jotzeak arnasa eskatzen dizu, eta hortaz ez da erraza; dosifikatu egin behar duzu.

Mursegorekin batera egindako zuzeneko kolaborazioetan ahotsak erabili dituzue. Pentsatu duzue inoiz elkarrekin zerbait egitea?
Jendeak esan izan digu, baina ez dugu ezer pentsatu. Maite oso liatuta dabil gainera... Oso polita izango litzateke, baina oraingoz zaila dirudi.

Asturiasen jaioa zara. Bi hilabeterekin etorri zinen Aviléstik Eibarrera lehenik, eta Irunera gero. Euskara deskubritzeak zer eman dizu sorkuntzarako?
Euskaldun berria naiz. Eibarren B eredura joan ginen ahizpa eta biok, baina Irunera pasatzean ez zegoen B eredurik, eta gaztelaniaz ikasi genuen, baita institutuan ere. Nire lagunekin gaztelaniaz egiten nuen nerabezaroan, baina beharbada musikari esker ezagutu genuen euskara, euskaraz egiten zuten taldeak oso baikenituen gustukoak. Bide horretatik berreskuratu nuen hizkuntza, euskara. Dut eta Akauzazterekin batez ere. Anari ere entzuten hasi nintzen... eta sartu ginen beste mundu batean, beste mundu-ikuskera batean.

Artistikoki ere, Jupiter Jonen, beste zerbait ematen dizu euskarak?
Bai, halaxe da. Hizkuntza bakoitzak bere kosmobisioa dauka, bere mundua, bere kultura... eta hizkuntza bat erabiltzen duzunean, mundu bat egiten duzu zeure. Guk batez ere euskaraz egiten dugu, baina badaude abesti batzuk gaztelaniaz, nik egiten ditudanak, eta niretzat unibertso desberdinak dira, baita sonoritate aldetik ere: beste soinu batzuk, beste silaba batzuk... leku desberdinetara zaramatzate.

Aipatu dugun moduan, azken hamarkadan asko aldatu dira diskurtsoak, kezkak. Feminismoen diskurtsoek eragin dizute bateria jotzaile modura, esaterako, gorputzaren kontzientziaren inguruan, eszenaratzean?
Bai, aldatu zait horretan ere mundu-ikuskera. Emakume naizen heinean erronka izan da hasieratik bateria jotzea. Hardcore talde ia guztiak gizonezkoz osatuta egon dira, eta halatsu musikaren ingurunea ere: promotoreak, teknikariak, antolatzaileak... Eta hor zure lekua egin behar duzu nolabait. Hasieran esaten nuen: "Ni bat gehiago naiz". Eta egun ere hori pentsatzen dut neurri batean, baina, bestetik, emakumea naiz, eta kontzientzia hori neureganatu dut. Orain gai hauek hain daude pil-pilean; neuri bizia ematen dit horrek. Jupiter Jonek Astigarragako lokal batzuetan entseatzen du, eta han geroz eta emakumezko musikari gehiago ikusten da. ●

LIBURUA

Apaldiak

ITSAS BIZIMINA
PELLO OTXOTEKO
BALEA ZURIA, 2019

IGOR ESTANKONA

Balea Zuria argitaletxean agertzeko aski kresaltsua, sakona eta urdina da *Itsas bizimina* (2019), itsasozale batek idatzitako poema liburu ezin zabalagoa. Ortzemuga urrunetara darama gizaki normala, eta gizaki normala epopeia baten parte dela erakusten digu. Pello Otxotekorekin (Irun, 1970) solastu naizenean edo bere aurreko liburuak hartu ditudanean –*Haraindiko begiraden bila urrun hura* (Bermingham, 1999), edo *Goizalbaren argitan* (Erein, 2007), edo *Anphora baita* (Alberdania, 2010)–, edo bestela kritikak irakurri izan dizkiodanean *Egan*-en edo beste inon, beti begitandu zait poeta bat zehatza, hizketaldi naroduna, leuna eta neurritsua. Ederra egin zait berriro kausitzea Otxotekoren idazkera hitz bakoitzari begiratua. Apalaren ahapaldiak itzuli izan balira legez sentitu naiz atzera.

Liburua heriotzari egindako kantu antologiko batekin hasten da, non *festina lente* doan gai beti pisutsu hau, non burdina bera ere arina bihurtzen baiten olatuen indarraren pean. Likidotu egiten da guztia: "Eta sarrailarik gabeko atean murgilduz/ keinu bat egingo dizut/ ainguraren norabidea bidelagun izan baino lehen...".

Azken erreferentziatzat har genezakeen *Anphora baita*-ren ildotik *Itsas bizimina* ere norbere buruari egindako galderetatik abiatzen da segurantzen eremu beti labainkorrera, eta duda zein helduleku falta liburuaren beraren grazia eta gatza dira: "Bizitzaren ur-begi garbiak/ zinezkotasunaren xirripari maiz/ muzin egiten dio,/ izakia eta egia bateraezinak bailiran./ Eta guk oraindik heldulekurik ez".

Abstraktua dena hartu eta forma eman, hara hor Pello Otxotekok bere gain hartu duen alferreko lana. Eta hala ere, lan hori aurrera zelan daroan ikustea zirraragarria da: "Neu naiz/ ene izurritea/ ene gangrena/ ene minbizia/ eta ene izatearen bizi-mina". Pello Otxotekoren poesia dekantazio bat da irakurtaldi guztiena. Bizitako egun bakoitzaren marka ere bai. Espirituala, folosofikoa, lirikoa da bere pentsakera. Eta bere pentsakera poemetan bilduak beste eite bat hartzen du. Erretratu bat eraiki du oraingoan sufritu eta barre egiten duen gizakiarena. Bertan agertzen gara guztiok. Ez da poesia bat abangoardiakoa, ez da emozioaren puruz bihotzera iristen dena. Apurka apurka irabazten zaituen poesia-modu ia ahaztu bat da, aho-zapore gozo bat uzten dizuna eguneroko zeregin unibertsaletara itzultzen zarenean. ●



DISKOA

Katakonbatan gustura bizi dira

¡¡VIVEN!!
LOS NITXOS
AUTOEKOIZPENA, 2018

IKER BARANDIARAN

Musika bizitzeko modu asko daude; nahi beste. Badira eskaintzen dietena soilik entzuten konformatzen direnak. Badira bilatzen aritzen direnak, eta horien artean are eta beherago edo ezkutuago arakatzen dutenak. Ildo horretatik oso garrantzitsua da orain gutxi Nikki Hill musikari eta abeslari afroamerikarrak esandakoa: "Musika bene-benetan maite baduzu, joan ahalik eta kontzertu gehienetara eta ahalegindu telonero diren talde txikiagoak deskubritzen; eta egiten dutena interesgarria baderitzozu lagundu egiezu, erosi beraien materiala eta hitz egin talde horretaz zure lagunei".

Eta hala deskubritu nuen neuk Los Nitxos, milaka kontzertutan ikusle gisa elkar ikusitako lau aurpegiz osatutako Gasteizko taldea. Birritan ikusi ditut zuzenean eta hara non eta Gasteizko Gaztetxean gauzatzen den Muinoko Hotsak ekimen bereizgarrian zein hiri bereko Helldorado areto benetakoan, zein baino zein musika pasio handiagoz bizi duen jendartea.

Los Nitxos taldea 2009an jaio zen hiri horretako katakonbatan. Beraien esanetan garagea egitea zen helburua, baina hori baino askoz gehiago aurki daiteke beraien eskaintzan. Hain zuzen ere, 2011n kaleratutako *Grandes decesos*-ek Joy Divisionen zantzuak ditu, esaterako. 2012an Bi Batean diskoetxeak kaleratutako *Gasteiz Dirt Capital* bilduman parte hartu zuten eta gerora teklatua gehituta *Dead at Jimmy Jazz* zuzenekoa kaleratu zuten 2013an, punk-rock ilunena agertuz. Horren ostean, Politburo eta Bazookari esker *Carnalito* muturreko post-punk lana.

Musika zale amorratuak dira Los Nitxos taldeko kideak, jakin-min handikoak eta halakoa da beraien emaitza, iluna, kiribildua eta ñabardura askotarikoa: *Soviet*-ek Flying Nun-eko taldeen distortsio garbi eta misteriotsua dauka eta tribaletik ere edanda post-punk melodikoa da. *En primera fila* giro espaziala, psikodelia, lo-fi-a eta noise kiribildua. *Casper* zingiretako rocka, no wave iluna eta elektronika minimalista. *Heredero* Paralisis Permanente-ren ahaide ruidista. Eta, azkenik, *Sex&drugs&heavy rock* garagetik abiatuta espazial eta rockeroa, diskoko gitarreroena. ●

Eta Lisabören doinu gordinetan murgildu nintzen

ANDREA ZUBOZKI
RAFA RODRIGO PERURENA

Dudarik gabe azken hilabeteetan gehien entzun dudan diskoa izan da Lisabören *Eta Edertasunaren Lorratzetan Biluztu Ginen*. Harreman berezia sortu dut berarekin, nire baitako lainoen uxatzeko erremedio biziki on bezala agertu delako, introspekzio terapia ilun bat, taldearen lan guziak bezala funtsean...

Baina nehoiz ez nintzen izan Irungo banda zuzenean ikusten, beraien isilunetik atera direnetik paradak ez direlako trumilka. Eta aukera aurkeztu zen apirilaren 13an, Iruñeko IndaraClub aretoan. Erran beharra dut baldintza guziak hor zirela Lisabören hardcore-a barnetik bizitzeko: akustika goxoa, musikarien hurbiltasuna eta publikoaren musikarekiko maitasuna.

Seikotea *Nomaden Zirkulu Tematia* kantuarekin hasi da, Marshall anplifikadore lerroaren burrunbek eta zinbalen ziztu saminek agindurik. Publikoa eta taldea bata bestearen energiaz elikatu eta segundo erdi batez areto guzia elektriko bihurtu da. Bi bateria jotzaileen joko xeheak harritu nau, ariketak inposatzen dien zuzentasunak ez diolako botatzen duten energiari deus kentzen. Soinu indartsua ekartzeaz gain, mugimenduen uniformaltasunak bisualki presentzia ikaragarria du.

Ahots eta gitarra lanetan ari diren Txap eta Javik soinu homogeneoa dute, gordin bezain gizena, distortsioa maisu. Hauek ere sekulako presentzia dakarte, mikrofono zangoak etengabe kulunkatu dira oholtzaren dardaren pean, ene inguruko buruak astindu diren bezainbat, Martxel Mariskalen hitzak oihukatu ondoan. Publiko fidela dela sendi da, musikarien plazererako.

Bi bateria, bi ahots, bi gitarra... eta bi baxuk osatzen dute Lisabö. Borjak baxu bat eta Squier VI bat, sei sokako baxu eta gitarraren arteko tresna, uztartzen ditu. Bi baxuek frekuentzia apal anitz ekartzen diote soinu orokorrari, zinbalen eta ahotsen zorroztasuna leunduz eta gure bular kaiolak astinduz.

Disko berriko kantu franko zuzenean aurkezteaz gain, lan zaharragoetako riff pisuez baliatzeko aukera ere eskaini digute, besteak beste *Ezlekuak* diskoa ohoratuz. Baina niretzako kontzertuko klimaxa *Oinazearen Intimitatea* izan da. Bi bateriek goia jo dute, gitarren akorde disonanteek tentsioa zintzilik atxikiz, dena bota arte. Publikoak lagundurik, "animalia lotsatuen lokatz-putzuetan" errepikatu dute bi kantariek, kaos hutsa lortu arte.

Lehen esperientzia hau ez dut uste azkena izango denik, Usopop festibalean ikusteko parada izanen delako maiatzaren 25ean. Bidehutsen bideak ez dira hain hutsak, Lisabö eta Joseba Irazokiren lanen ondotik ALBA eta Jupiter Jon taldeen diskoak plazaratuko dituzte ondoko hilabeteetan. Adi... ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Nahiko. Barren, hondo. **2.** Nafarroako herria. **Argazkiko zuhaitza**. **3.** Ateak ixteko erabiltzen den burdinazko barratxoa. **4.** Antzinako su arma. **5.** Opil. Zergadun. **6.** ...-zart, kolpearen onomatopeia. Kanpotar. **7.** Biokimikako erreakzioak eragiten edo bizkortzen dituen gai urkorra. Protestanteen artean pobreei laguntzen dien laiko. **8.** Ukitzea, ukipena. Euskaldunon hizkuntzaz.

GOITIK BEHERA:

1. Kirol mota, borroka japoniarraren modalitatea. Zuhaur. **2.** Konparazio-atzizkia. Tinko, irmo. **3.** Mihigaizto. **4.** Arrautza. **5.** Erabat, txit. Iridioaren sinboloa. **6.** Pilota jokoan, angeluan bertan jotzen duela. Seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea. **7.** Arma zaharra, geziak edo harriak jaurtitzeko erabiltzen zena. **8.** Bizitzez. **9.** Holmioaren sinboloa. Jarraibide, modelo. **10.** Eusko Alderdi Jeltzalea. Kolore goibel. **11.** Tamaina handiko hegaztiak. **12.** Malda handiko aldapa. **13.** Etorri aditzaren infinitiboa. **14.** Luzera neurria, berga. **15.** ... gainetik, ororen gainean.

Sudokua

ERRAZA

6						2		9
		2		4		6	3	
	8			6		1	4	
	6	4	7	2		5		
	3	7				9	1	
		9		1	6	7	2	
	1	8		9			7	
	9	5		3		4		
3		6						1

ZAILA

	8				9			3
3		5				9	6	
	6		3			7		
		4	2		8			
			5		7	8		
		7			4		9	
	2	8				3		1
9			6				7	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Ibilgailu blindatu	TANKE
Izan ezik	
Teilatuetako pieza	
Almutea	
Belarrondoko	
Higienerako hauts	
Poloniako dantza	
Landa, at	
Musika tresna	
Isurkari mingots	
Baba	
Su eman	
Gorantz zuzen	ZUTIK

EBAZPENAK

ATSOTZITZA

IPURDI BATEGAZ, LEKU BITAN EZIN JESARRI.

ZUTIK
PLZTU
PINTZ
OZPIN
PIANO
KANPO
POLKA
TALKO
TXALO
TXILA
TEILA
LEKAT
TANKE

ANAGRAMAK

6	4	1	8	7	3	2	5	9
5	7	2	9	4	1	6	3	8
9	8	3	2	6	5	1	4	7
1	6	4	7	2	9	5	8	3
2	3	7	5	8	4	9	1	6
8	5	9	3	1	6	7	2	4
4	1	8	6	9	2	3	7	5
7	9	5	1	3	8	4	6	2
3	2	6	4	5	7	8	9	1

ERRAZA

9	4	1	6	2	3	5	7	8
6	2	8	9	7	5	3	4	1
5	3	7	8	1	4	2	9	6
2	1	6	5	4	7	8	3	9
8	5	3	1	9	6	4	2	7
7	9	4	2	3	8	6	1	5
1	6	9	3	5	2	7	8	4
3	7	5	4	8	1	9	6	2
4	8	2	7	6	9	1	5	3

ZAILA

ESKER-ESKUIN: 1. SAMAR, BEHE, 2. UGAR, PAGOA, 3. MORROILO, 4. MOSKETE, 5. TALO, ZERGAPEKO, 6. ZIRT, ATZERRITAR, 7. ENTZIMA, DIAKONO, 8. UKIERA, EUSKARAZ. . **GOITIK BEHERA:** 1. SUMO, ZEU, 2. AGO, TINK, 3. MARMARTI, 4. ARROLTZE, 5. OSO, IR, 6. PIK, AMA, 7. BALEZTA, 8. EGOTEZ, 9. HO, EREDU, 10. EAJ, GRIS, 11. ARAK, 12. PIKA, 13. ETOR, 14. KANA, 15. OROZ..

Isabel Alonso

HERIOTZA DUINA

OINAZEA, ALDAKETAREN PALANKA

Betidanik izan naiz kausa progresisten militantea eta feminista. Nire amaren heriotzaren harira heldu nintzen heriotza duinaren alde borrokatzen duen Dret a Morir Dignament elkartera: alzheimerra diagnostikatu zioten eta hamar urteko degradazioa sufritu zuen hil aurretik. Prozesu gogorra izan zen familiarentzat, informazioa falta zitzaigun, eta ahal izan genuen bezala ikasi genuen gaixotasunarekin elkarbizitzen. Gogoratzen dut institutuko irakaslea nintzenean *Mar adentro* filma jartzen niela ikasleei. Gerora konturatu nintzen amarekin bizitakoak eutanasiaren inguruko eztabaidaren ateak ireki zizkidala, heriotza duinaren aldeko borrokan murgilduz.

"Suizidio biolento asko ere saihestuko lirateke eutanasia legala balitz"

Kataluniako Parlamentuak 2017ko uztailean onartu zuen eutanasiaren despenalizazio proposamena, 1984az geroztik heriotza duinaren alde lanean ari den Dret a Morir Dignament (DMD) elkartearen lanari esker. 2016az geroztik Isabel Alonso da elkarteko presidentea.

SAIOA BALEZTENA
JORDI BORRÀS

Esklerosi anizkoitzaren azken fasean zegoen eta aspalditik eutanasia eskatzen zuen María José Carrascori hiltzen laguntzeagatik, honen senarra atxilotu zuen Espainiako Estatuak apirila hasieran. Zer deritzozu?
Ezer baino lehen, nire esker ona agertu nahi diet María José eta Angeli, euren kasua publiko egitea erabaki izanagatik. Jakin badakigu halako kasu gehiago daudela, intimitate-eskubidea bermatzeko isilpean geratzen direnak. Era berean, isilpean mantentzen den arazo honi ikusgarritasuna eman eta gogoeta bizirik mantentzeari begira, kasuak publiko egiteak asko lagundu izan du historikoki.

Eutanasiaren aldeko borroka zure amaren heriotzaren ondotik hasi zenuen. Zertan aldatu da zure harremana heriotzarekin?
Guztiz aldatu da. Lehen ez nintzen gai heriotzaz hitz egiteko. Orain ordea, nire bizitzaren zati handi bat heriotzaren inguruan mugitzen da. Garapen horretaz konturatzen naiz, elkartetik kanpo jendearekin gaia gardenki jorratzen dudalako.

Jendartean heriotza tabua al da oraindik?
Noski baietz, jendeak errazago hitz egiten du gaixotasunez heriotzaz baino. Bitxia da, eufemismoak erabiltzen dira oraindik. Ezinbestekoa da tabua haustea. Gure elkartean, adibidez, espreski erabiltzen dugu heriotza hitza. Baina informazio eske etortzen den jende askori kosta egiten zaio heriotzaz gardenki hitz egitea. Eta hori, gauzak aldatu direla kontuan hartuta: Metroscopiak 2017ko otsailean egin zuen inkesta baten arabera, 35 urtetik beherako gazteen %90a heriotza duinaren alde zegoen.

Zenbateraino da Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD) urrats garrantzitsua, eutanasia legeztatu bitartean?
Zalantzarik gabe, aipatzen dugun tabu hori hautsi eta heriotzaren eztabaida

"ALDARRIKATZEN DUGUN LEGEAK, BATETIK SUFRIKARIOA ETA KLANDESTINITATEA EKIDINGO LITUZKE. BESTETIK, ASKATASUNEAN ERE IRABAZIKO GENUKE".

naturaltasunez garatzeko ezinbestekoa izan da ABDa. Dokumentu honen bitartez, norbanakoek idatzita utzi ditzakete gaixotasun batek euren erabakia zein den zehaztea ekidinez gero jaso nahiko lituzketen interbentzio eta tratamenduen argibideak. Hala ere, esan beharra dago urrats garrantzitsua izan den arren, desinformazioa oraindik ere nagusi dela zoritxarrez, eta jende gutxik egiten duela. Katalunia da dokumentu gehien aurkeztu dituen autonomia erkidegoa.

Lehen aipatzen zenuenez, biztanleen gehiengoa heriotza duinaren alde dagoen arren, eutanasia oraindik legez kanpokoa da. Nola da posible?

Hark esaten zuen bezala, elizarekin topo egin dugulako... hierarkia katolikoaren presioak oztopatu du gure borroka. Tira, abortuarekin edo sexu berekoen ezkontzen eztabaidekin historikoki gertatu izan den bezala. Gaur egun biztanleriaren gehiengoa eutanasiaren alde dago, baina *The Economist*-ek 2015ean egin zuen ikerketa batek agerian uzten zuen moduan, Frantzia eta Espainia dira herritarren iritzia eta legea elkarrengandik urrutien dituzten herrialdeak. Espainiako kasua eskandaluzkoa da.

Zein dira eutanasia ez legeztatzearen ondorioak?

Aldarrikatzen dugun legeak, batetik sufrikarioa eta klandestinitatea ekidingo lituzke. Bestetik, askatasunean ere irabaziko genuke. Izan ere, gaur egun heriotza duina aldarrikatzen duten familia askok klandestinitatean burutzen dute eutanasia, horrek dituen ondorioekin. Eta ez hori bakarrik, suizidio biolento asko ere saihestuko lirateke eutanasia legezkoa izango balitz.

DMDk 35 urte betetzen ditu aurten. Zein irakurketa egiten duzue elkartearen ibilbidearen inguruan?

Elkartea hiru helbururekin jaio zen: lehena, aurretiazko borondateen agiria egitea; bigarrena, eutanasia legeztatzea; eta azkena, bizitzarekin amaitzeko askatasunaren aldeko babesa Espainian areagotzea. Gauzak horrela, gaur egun baieztatu dezakegu hiru helburuetatik bi ase ditugula dagoeneko. Garrantzitsuena baino ez zaigu falta.

Espainiako eutanasiaren legearen etorkizuna hurrengo legealdian dago orain. Baikorrak zarete?

Eutanasiaren legea onartzeko ezinbestekoa izango da eskubide honen alde dauden alderdi politikoen garaipena. Baikorrak gara, 2018an Espainiako parlamentarismoaren historian lehen aldiz tramitera onartu zirelako eutanasiaren bi lege proposamen: Kataluniako Parlamentuarena eta PSOErena. Beraz, oso gertu egon gara, botoek zenbatzen zutelako. Baina PP eta Ciudadanosek lege guztiak blokeatu dituzte...

Amaitu baino lehen, zein dira zuen erronka nagusiak hemendik aurrera?

Garrantzitsuena: eutanasia legeztatzea. Bitartean, gure erronka izango da Kataluniako 21/2000 legearen eta Espainiako 41/2002 legearen aplikazioa bermatzea, sufrimendua eta gaixoen tratamenduak ekiditeko eskubidea bermatzen dutelako. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Kamioi bat irauli da N-1 errepidean eta lau tona politologo isuri ditu

Auto-ilara luzeak izan dira asteazken honetan N-1 errepidean, Beasain parean. Kamioi bat irauli egin da eta karga guztia errepidean isuri du: lau tona politologo, maiatzeko hauteskundeei buruzko analisi burutsuak egiteko fabrikatik atera berriak. Ertzaintza eta suhiltzaileak berehala joan dira ezbeharra izan den lekura, baina ezin izan dute ezer egin kamioiaren gidaria salbatzeko: paktu posibleei buruzko iritzi kontrajarriek eragindako enboliaren ondorioz hil da. Errepide osoan zehar barreiatutako politologoak biltzeko 1.000 smartphone baino gehiago erabili behar izan dira. "Twitterren idazten uzten diezunean soilik gelditzen dira zerrikume hauek", adierazi du operatiboan parte hartu duen agente batek. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Urkullu: "Iñigotxo eskolan aspertu egiten zelako sartu zen politikan"

Pro Zarautz: "In the middle of the night jartzea ahaztu zitzaien"

NESKATOAREN GURASOEK PREST DAUZKATE URTEBETETZE-FESTARAKO ZIZKA-MIZKAK.

"Alabari bibradore bat oparitu diot Lehen Jaunartzean"

Bederatzi urteko alaba telefono mugikorra edukitzeaz gain beste gauza askotarako ere nahikoa heldua delakoan, Nekane Izagirre ordiziarrak bibradore bat oparitu dio Lehen Jaunartzean. "Ez hori bakarrik, *Assassin's Creed* bideo-jokoa, 15 gramo speed eta *Jakin* aldizkariko harpidetza ere oparitu dizkiot", azaldu digu. "Ez zaitezte larritu, nola erabili behar dituen azaldu diot konfiantza-giroan: gehienez, egunean pitxu arrasto bi eta *Jakin*eko dozena-erdi orrialde". Gainerako gurasoek nola erreakzionatu duten galdetu diogu: "Nola erreakzionatuko zuten ba, neska guztiek jaso dute-eta opari bera! Baztertua ez sentitzeko erosi dizkiot alabari gauza horiek. Etxean ere horixe ikusten du eta... aita *Jakin* irakurtzen eta ni, ba hori...", esan digu Izagirrek sudur-azpia ferekatuz. Eta, gelako mutikoei ere bibradorea oparitu al diete? "Batzuei bai, baina gehienek *Hontza ostatuan egonaldie* dioen txarteltxoa jaso dute. Marinel jantzia nola erantzi ikasiko dute han, karkarkar". ●

ARGIA

BALTSAN
ELKARTEA

ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

ZIBURU
Herriko plazan

EKAINAREN 1ean
Larunbata
11:00 - 20:00

bizi nahi duen herria

WWW.ARGIA.EUS
#ARGIAk100urte

100 URTE TXIKITIK ERAGITEN

HERIOTZA. ANTE LA MUERTE

Erakusketa

2019-03-13 // 2019-05-26

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia
T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa
#HeriotzaAnteLaMuerte

STM San Telmo Museoa | Donostia San Sebastián | donostia kultura | aranzadi | GORDAILUA | Gipuzkoako Foru Aldundia Kultura | eitb | kutxa | EL DIARIO VASCO